San Adrian-Lizarrate

Gipuzkoako historiaren igarobidea

SAN ADRIAN-LIZARRATE

Argitalpenaren Zuzendaria: *Juantxo Agirre-Mauleon*

Edukiaren koordinazioa: *Eider Conde, Aranzadiko Komunikazio Saila*

Testuak: *Esteban Álvarez-Fernández, Arantza Aranburu, Pablo Areso, Angel Armendariz, Martín Arriolabengoa, Pedro Castaños, Jone Castaños, Manu Ceberio, Miriam Cubas, Miren del Val, Francisco Etxeberria, Joseba Garmendia, Lourdes Herrasti, Maria José Iriarte-Chiapusso, Eneko Iriarte, Alfredo Moraza, Jexux Tapia, Ana Uriz eta Lydia Zapata.*

Maketazioak: *Tamtam S.L.*

Azalaren argazkia: *Kutxateka / Fondo Alday.*

Imprimaketa: *Gráficas Lizarra, S.L.*

Itzulpenak: *Saretik*

Aranzadi Bilduma 02

ISBN 978-84-944251-3-4

ISSN 2255-0437

D.L. SS 134-2016

ARANZADI zientzia elkartea

Zorroagagaina 11

20014 Donostia - San Sebastián

Tel.: 943 466142 • Fax: 943 455811

e-mail: idazkaritza@aranzadi-zientziak.org

www.aranzadi-zientziak.org

Eskerrak

Aitor Zabaleta, Mikel Edeso, Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartea, Tito Agirre, Asier Izagirre, Sebas Lasa, Edurne Albisu, Blanka Gomez de Segura, Clara Gangutia, Fototeka Kutxa, Fermin Leizaola, Enrique Lekuona, Mikel Legorburu, Bibat Museoa, Gordailua, Carlos Olaetxea, Euken Alonso, Aizkorriko parkearen teknikari eta basozainak, Partzoneriako basozainak, Gipuzkoako Agiritegia Orokorrak, Manuel Iradier Txangolari Elkartea, Lanbide.

San Adrian-Lizarrate

Gipuzkoako Historiaren igarobidea
La Historia de Gipuzkoa a través del túnel de San Adrian

San Adrian - Lizarrate
2016

AURKIBIDEA orr.

1. AURKEZPENA 6

2. AIZKORRI: Geologia, flora eta fauna 9
   - 2.1 Geografia fisikoa. Haitzuloa eta haren jatorri karstikoa 10
   - 2.2 Flora eta fauna San Adrianen 21

3. AURREKARI ZIENTIFIKOAK 25

4. PALEOLITOA. Lehen aztarnak 47
   - 4.1 San Adrian: okupazioa 1000 metroko garaieran, glaziazioaren amaierako testuinguruan 48

5. BRONTZE AROA. Nekazariak eta abeltzainak 51
   - 5.1 San Adrian: Brontze Aroan mendi inguruetan zeuden populazioen adibide bat 52
   - 5.2 Natura-ingurunea Brontze Aroan 55
   - 5.3 San Adrian aztarnategiko Brontze Aroko zeramika 57
   - 5.4 Brontze Aroko harrizko eta hezurrezko tresnak San Adrianen 63
   - 5.5 Gizon-emakumeak eta umeak Aizkorriko mendilerroan. San Adriango leizean aurkitutako giza hondakinak 70
   - 5.6 San Adriango faunaren ekarpen arkeologikoak 74

6. ERDI AROA 79
   - 6.1 San Adrian Historian sartzen da: Gaztelua 80

7. ARO MODERNOA ETA XIX MENDEA 93
   - 7.1 Galtzada Aro Modernoan 1820 urte arte 94

8. BIDE ABANDONATUA 107

9. SAN ADRIANEN EGINDAKO LANA ARGAZKIETAN 119

10. BIBLIOGRAFIA 131

ÍNDICE

pag.

1. PRESENTACIÓN 6

2. AIZKORRI: Geología, flora y fauna 9
   - 2.1 Geografía física. La cueva y su origen kárstico 10
   - 2.2 Flora y fauna en San Adrian 21

3. ANTECEDENTES CIENTÍFICOS 25

4. PALEOLÍTICO. Primeros vestigios 47
   - 4.1 San Adrian: una ocupación a 1000 metros de altitud en el contexto de la última glaciación 48

5. EDAD DEL BRONCE. Agricultores y ganaderos 51
   - 5.1 San Adrian: un ejemplo de las poblaciones en zonas de montaña durante la Edad del Bronce 52
   - 5.2 El medio natural en la Edad del Bronce 55
   - 5.3 La cerámica de la Edad del Bronce del yacimiento de San Adrian 57
   - 5.4 El utillaje en piedra y en hueso de la Edad del Bronce en San Adrian 63
   - 5.5 Hombres, mujeres y niños en la sierra de Aizkorri. Los restos humanos localizados en la cueva de San Adrian 70
   - 5.6 Aportaciones arqueológicas de la fauna de San Adrian 74

6. EDAD MEDIA 79
   - 6.1 San Adrian entra en la Historia: el castillo 80

7. EDAD MODERNA Y SIGLO XIX 93
   - 7.1 La calzada en la Edad Moderna hasta 1820 94

8. EL ABANDONO DEL CAMINO 107

9. EL TRABAJO REALIZADO EN SAN ADRIAN EN FOTOS 119

10. BIBLIOGRAFÍA 131

Aurkezpena
Presentación

"Euskal Herriko paisaia naturala gizakiak hartu du bere osotasunean, San Adrian igarobidea kasu. Eremu honetan hala ere, giza aztarnen eta naturaren arteko oreka mantendu da. Bidearen muinean istorio, usadio eta pertsonaia ugari aurki daitezke. Badirudi bertan denbora eten dela eta bere bakardadearen baitan artaldeen hotsak, Aizkorrira igotzen diren mendizaleak, Ternuatik balearen olioa daramaten mandazainen mando talde amaigabeak, muga irabazi nahi duten soldaduak, Gaztelatik ekarritako garia zeramaten kontrabandistak eta neguaren bukaeraren zain dauden Mikeleteak entzun daitezkela. . .San Adriango bideak hura zeharkatu zuten gizonemakumeen historia gorde du, kontinentea penintsularekin konektatu zuten horien historia, alegia".

"Todo el paisaje natural de Euskal Herria se encuentra humanizado, al igual que el paso de San Adrian. Pero aquí se conserva un respetuoso equilibrio entre la naturaleza y la huella humana. El paso está cargado de historias, de leyendas, de protagonistas. Es como si el tiempo se hubiera detenido y en su soledad se mezclaran los sonidos de los pastores con sus rebaños, los montañeros que suben a Aizkorri en grupo, los arrieros con infinitas recuas de mulas con el aceite de las ballenas traído desde Terranova, los soldados que querían ganar la frontera, los contrabandistas con trigo de Castilla, los Miqueletes a la espera del fin del invierno… la historia completa de hombres y mujeres que conectaron el continente con la península a través del camino que ha conservado el paso de San Adrian".

Paco Etxeberria Gabilondo
Aranzadi Zientzia Elkarteko Lehendakaria



Koro Arratibel.

1. irudia. San Adriango ingurunea.
Figura 1. *Entorno de San Adrian.*



Atala

Capítulo 2.

AIZKORRI: Geologia, flora eta fauna

AIZKORRI: Geología, flora y fauna

2.1. Geografia fisikoa. Haitzuloa eta haren jatorri karstikoa
Geografía física. La cueva y su origen kárstico

A. Aranburu, E. Iriarte, A. Uriz,
P. Areso, M. del Val, M. Arriolabengoa



1. irudia. Aizkorriko mendigunearen iparraldeko aldea, Lizarrate tunela-San Adrian ingurua. Google Earth-etik hartutako irudia.

Figura 1. *Cara norte del Macizo de Aizkorri, en la zona del túnel de Lizarrate-San Adrian. Imagen tomada de Google Earth.*

Aizkorri mendigunea Gipuzkoako tontor harritsu nagusienetako bat da eta ingurua behatzeko begiraleku naturala da 1528 m-ko tontorra. Goragune harritsu hau Kretazeoko itsas kareharriz osatuta dago batez ere. Kareharri horiek orogenia alpetarrak sortutako konpresio-indarrek goratu zituzten, batez ere Oligozenoan, duela 34-23 Miloi urte (Mu.) inguru. Erliebe horiek eratu zirenetik, klima-erregimenei lotutako meteorizazio fisikoak nahiz kimikoak erliebeari forma eman diote eta horren emaitza da orain ikusten dugun paisaia.

Testuinguru geologikoa: Kretazeoko itsaso tropikalak

Aizkorriren historia ulertzeko, hainbat milioika urte atzera egin beharra dago; Mesozoikoraino, hain zuzen, eta zehatzago esateko, Kretazeora: aro hartan eratu ziren kareharriak, duela 125-100 Ma. Kontinenteen kokaera, itsasoak, klima eta bizitza-formak oso ezberdinak ziren oraingoekin alderatuta. Garai hartan, orain Euskadik hartzen duen eremua tokiaren arabera sakonera handiagoa edo txikiagoa zuen itsaso

El macizo de Aizkorri es uno de los principales promontorios rocosos de Gipuzkoa, constituyendo la atalaya natural del entorno con su cima de 1528m. Esta elevación rocosa está formada mayoritariamente por calizas marinas de edad cretácica que fueron elevadas por fuerzas compresivas derivadas de la Orogenia Alpina, durante el Oligoceno principalmente, hace aproximadamente 34-23 Millones de años (Ma.). Desde la formación de estos relieves, la meteorización tanto física como química ligada a los distintos regímenes climáticos ha modelado el relieve, dando como resultado el paisaje que observamos en la actualidad.

Contexto Geológico: los mares tropicales cretácicos

Para entender la historia de Aizkorri es necesario retroceder en el tiempo varios millones de años, hasta la era Mesozoica y, más concretamente, al periodo Cretácico: edad en la que se formaron las calizas, hace 125-100 Ma. La disposición de los continentes, los mares, el clima y las formas de vida que reinaban eran muy



2. irudia. García-Mondejar *et al.*, 2004 Aptiar-Albiarreko mapa paleogeografikoa. Gaur egungo itsasertzaren gainean ikusten dira azaleko itsas plataformaren kareharri kretazikoak, hegoaldean itsasertzeko sedimentu siliziklastikoak eta alubioi-lautada dituela eta arro sakonagoaren faziesak iparraldean (Bilbo, Gernika, Zumarraga... ingurua) (García-Mondejar *et al.,* 2004 eraldatua).

Figura 2. *Mapa paleogeográfico del Aptiense-Albiense, donde destacan sobre la línea de costa actual, las calizas cretácicas de plataforma marina somera rodeadas de sedimentos siliciclásticos costeros y la llanura aluvial al sur, y facies de cuenca más profunda, al norte (zona de Bilbao, Gernika, Zumarraga,…). (Modificado de García-Mondéjar et al. 2004).*

baten pean, urpean, zegoen ia erabat. Itsasertza askoz hegoalderago zegoen; ikus azaleratutako zatiak 2. irudian.

Garai hartan, Amerika kontinentetik bereizten gaituen dortsala (dortsal Atlantikoa) oso gaztea zen artean. Gure oraingo itsasertzetik gertu zegoen eta Iberiar Penintsula eta Europa kontinentea bereizten zituen: huraxe izan zen Ipar Atlantikoaren jaiotza. Pultsu tektoniko haien ondorioz, itsas hondoak goratu edo beheratu egiten ziren, bloketan zatituta. Une hartako sakonera txikiko ur epel edo tropikalei esker, karbonatoa finkatzen duten organismoak garatu ziren (errudista bibalbioak eta koralak, batez ere), eta horrenbestez, ur garbia, sakonera txikikoa eta ondo argiztatua (bloke goratuak) zegoen tokietan kareharriak sortu ziren, gaur egun Aizkorrin, Aralarren, Hernion eta inguruko kareharrizko mendi gehienetan ikusten ditugun horiek, hain zuzen (2. irudia). Ur sakoneko blokeek aldiz, kontinentetako ibaietatik edo sakontasun gutxiko itsas plataformatik etorritako hareak eta legarrak garraiatzen zituzten korronteak kanalizatzeko ildoak osatu zituzten. Sedimentazio hura, hala ere, ez zen konstantea izan denboran zehar.

Aptiarrean itsasoaren mailak izandako igoeraren ondorioz, sedimentu terrigenoak hegoalderago gelditu ziren, itsasertzeko eremuek atzera egin zutelako eta hor garatu ziren lehen organismo karbonato-finkatzaileak. distintas a las actuales. Durante este periodo la extensión que hoy ocupa Euskadi estaba prácticamente sumergida bajo un mar, más o menos profundo según la zona. La línea de costa se situaba mucho más al sur; véase las zonas emergidas en la figura 2.

En aquellos tiempos la dorsal que nos separa del continente americano (la dorsal Atlántica) era muy joven y estaba situada próxima a nuestra costa actual, separando la Península Ibérica del continente europeo: era el nacimiento del Atlántico Norte. Como resultado de estos pulsos tectónicos, los fondos marinos se compartimentaron en bloques que se elevaban o se hundían. Las aguas cálidas, tropicales en aquel momento, permitieron el desarrollo de organismos fijadores de carbonato (rudistas y corales, principalmente) en zonas de aguas limpias, poco profundas y bien iluminadas (bloques elevados) dando lugar a la formación de calizas, hoy visibles en Aizkorri, Aralar, Ernio, o la mayoría de los montes calcáreos del entorno (Fig. 2). Los bloques hundidos, sin embargo, conformaron surcos de canalización de corrientes que arrastraban arenas y conglomerados aportados por los ríos desde el continente, o desde la misma plataforma marina de poca profundidad. Esta sedimentación, sin embargo, no fue constante a lo largo del tiempo.

El aumento del nivel del mar que tuvo lugar en el Aptiense provocó que los sedimentos terrígenos quedaran más al sur, debido al retroceso de las zonas costeras y dio lugar a un primer desarrollo de organismos fijadores de carbonato. Sin embargo, esta primera producción carbonatada fue interrumpida por un nuevo avance desigual de la línea de costa, hacia el norte, con llegada de arenas y fangos al fondo marino (Lutitas de Apotzakarta, Fernández- Mendiola, 1989) (Aptiense superior).

Las calizas de la Unidad de Aizkorri son fruto de una nueva producción carbonatada que tuvo lugar a finales del Aptiense superior (120 Ma). La proliferación de rudistas y corales sobre el fondo marino creó una plataforma carbonatada somera que se extendía, en su inicio, a lo largo de 22 km (Aptiense superior- Albiense inferior), mostrando un talud abrupto hacia una cuenca más profunda hacia el NE (hoy zona de Mutiloa, Zegama o el propio puerto de Etxegarate), con fragmentos de la plataforma caídos por gravedad (olistolitos) y depositados al pie del talud (como, por ejemplo, en el entorno de Zabalaitz, Segura o Etxegarate). Hacia el sur, sin embargo, la plataforma pasaba gradualmente a ambientes litorales o continentales. Durante los siguientes 20 Ma. el crecimiento de la plataforma carbonatada marina fue a menos debido a una tendencia generalizada y persistente de subida del nivel del mar que los

Hala ere, lehen karbonatozko ekoizpen hura eten egin zen itsasertz lerroak iparralderantz egin zuelako, itsas hondora hareak eta lohiak iritsi zirelarik (Apotzakartako Lutitak, Fernández-Mendiola, 1987 (Goi Aptiarra).

Aizkorriko Unitateko kareharriak Goi Aptiarraren amaiera aldera (120 Ma) izandako beste karbonatozko ekoizpen baten emaitza dira. Itsas hondoan errudistak eta koralak ugaritzean (Goi Aptiarra-Behe Albiar bitartean), sakonera txikiko karbonatozko plataforma bat sortu zen. Hasieran 22 km^2? inguru zituen, eta arro sakonago bateranzko ezponda piko bat zuen, ipar-ekialderantz (gaur egun Mutiloa, Zegama edo Etzegarateko portua). Bertan grabitateagatik eroritako plataforma zatiak zituena (olistolitoak), ezpondaren oinean jalkitakoak (adibidez, Zabalaitz, Segura edo Etzegarate ingurua). Hegoalderago, hala ere, plataforma itsasbazterreko inguruetara edo inguru kontinentaletara igaro zen pixkanaka. Hurrengo 20 Ma-tan, karbonatozko itsas plataformaren hazkundea moteldu egin zen itsasoaren mailak goranzko joera orokorra eta iraunkorra hartu baitzuen eta organismo karbonato-finkatzaileek ezin izan zuten joera hori konpentsatu (Urbiako landetako tuparriak) eta oso toki jakinetara murriztuta gelditu ziren (3. irudia).

Zaraiako eta Aizkorriko karbonatozko bankuen handitzea kolpetik gelditu zen Erdi Albiarrean, hegoaldetik (Urkilla mendilerroa) sedimentu detritiko terrigenoak (hareak eta lohiak) iritsi zirenean. Organismo karbonato-finkatzaileak/ekoizleak, asko, iragazleak dira eta sedimenturik gabeko ur garbiak behar dituzte eta, beraz, ibaiak itsasoan sartzean, urak arretu egin ziren eta gelditu egin zen "karbonato-lantegia".

Orogenia alpetarra: mendien jaiotza

Dortsal atlantikoaren irekierak ez zuen Bizkaiko golkorantz jarraitu. Plaken arteko mugimendu erlatiboek dortsalaren norabidea aldarazi zuten Kretazeo amaieran eta, hala, dortsal atlantikoaren irekiera nagusiak iparralderako

organismos fijadores de carbonato no pudieron compensar (las margas de las campas de Urbia), restringiéndose éstos a zonas muy localizadas (Fig. 3).

El crecimiento de los bancos carbonatados de Zaraya y Aizkorri se detuvo bruscamente durante el Albiense medio, en respuesta a la llegada de sedimentos detríticos terrígenos (arenas y fangos) de procedencia meridional (sierra de Urkilla). Los organismos fijadores/productores de carbonato, muchos de ellos filtradores, necesitan aguas limpias de sedimento y el avance de los ríos mar adentro provocó el enturbiamiento de las aguas y el cese de la "fábrica carbonatada".

La Orogenia Alpina: el nacimiento de los montes

La apertura de la dorsal atlántica no siguió avanzando hacia el Golfo de Bizkaia. Los movimientos relativos entre placas provocaron cambios en su dirección a finales del Cretácico, haciendo que la apertura principal de la dorsal atlántica siguiera su curso hacia el Norte (atravesando Islandia) y que en el Golfo de Bizkaia las fuerzas de extensión se tornaran compresivas. La Cuenca Vasco Cantábrica, con un máximo de 15.000 m de sedimento acumulados durante la fase extensiva (desde el Permo-Trías hasta el Eoceno, durante 210 Ma.), deja de funcionar como tal.

Durante el Eoceno superior (hace 40 Ma) las placas Ibérica y Europea colisionaron dando paso al nacimiento de los Pirineos. Ya en el periodo Eoceno la zona catalana estaba emergida y los sedimentos producto del desmantelamiento de estos jóvenes montes rellenaban los fondos de la todavía profunda cuenca marina. Pero el avance de la colisión entre las dos placas dio lugar a que los



3. irudia. Hainbat unitate karbonatatu, Kretazeoko azaleko itsas plataforman eratuak. Lehenengoa, Aptiarrekoa eta Aizkorriko unitatea Aptiar-Albiarrekoa (Fernández-Mendiola, 1987).

Figura 3. *Distintas unidades carbonatadas, formadas sobre la plataforma marina somera cretácica. Una primera, del Aptiense y la Unidad de Aitzgorri del Aptiense-Albiense (Fernández-Mendiola, 1987).*

noranzkoa hartu zuen (gaur Islandia zeharkatuta), eta Bizkaiko golkoan, hedapen-indarrak konpresiozko bihurtu ziren. Euskokantauriar Arroak, hedatze-fasean (Permo-triasetik Eozenora arte, 210 Ma-ko iraupenarekin) gehienez 15.000 m sedimentu pilatuta, arro gisa funtzionatzeari utzi zion.

Goi Eozenoan (duela 40 Ma), Iberiar plakak Europarekin talka egin zuten eta hortik sortu ziren Pirinioak. Eozenoan, Katalunia ingurua azaleratuta zegoen jada eta mendi gazte haien eraispenak sortutako sedimentuek betetzen zuten oraindik sakona zen Zumaiako itsas arroaren hondoa. Baina bi plaken arteko talkak aurrera egitean, Euskokantauriar Arroaren itsas hondoan jalkitako materialak konprimatu, deformatu, tolestu, goratu eta, hein batean, higatu egin ziren 10 Ma-ko denbora-tartean eta, hala, euskal mendiak eta Pirinioak sortu ziren (Oligozenoan). Horrela bakarrik uler daiteke Kretazeoko uretan, sakonera txikian sortutako koralak eta errudistak orain mila metro inguruko garaieran ikustea (Aizkorri, Aralar, Anboto, etab.) eta Kretazeoko eta Tertziarioko arro sakonetan jalkitako materialak gure gaur egungo itsasertzeko labarretan azaltzea.

Denboraren joanak sortutako higadura: Modelatzea

Aizkorriko oraingo paisaia, haren historia osoaren azken emaitza da; hor sartzen dira sorrera geologikoa (arroka-motak eta hauen antolaera), meteorizazioa (kimikoa eta/edo fisikoa, klima-erregimenen arabera) eta giza jarduerak (hainbat kultura) ere. Paisaia horren historiaren azken 23 Ma urteetan, jada harkaitz bihurtutako jalkinak gaur egungo haran eta mendi bihurtu arte moldatu diren denbora horretan guztian, hainbat klima-erregimen izan dira inguru honetan.

Nafarroa hegoaldeko erregistroen (Errege Bardea, Murelaga *et al.*, 2006) arabera, Oligozenoan-Miozeonoan sortu berri ziren erliebeak higatu egin ziren, hasieran hotzagoa-hezeagoa eta ondoren, Erdi Miozenoan epel-beroa izan zen klima-erregimenaren eraginpean. Aizkorrin ikus daiteke gaur egun Behe Kretazikoko kareharriak azaleratzeko, horien gainean jalkitako itsas sedimentuen erregistro guztia (goi Kretazikotik Behe Eozenorainoakoa) desegin egin dela. Higadura handiko fase hark materialak goratu zireneko fasean edo fase hura amaitu eta berehala izan behar zuen, erliebearen izaera "gaztea" eta altitudea/goragunea kontuan hartuta (Goi Eozenoa-Miozeno bitartean). Baliteke higaduraren ondorioz, erliebe laua (peniplanizatua) sortu izana eta handik abiatuta eratzea gaur egun ezagutzen ditugun ibai-sareak.

Tertziarioa Pliozenoarekin amaitzen da; hau da, duela 5,5-2,5 milioi urte inguru. Pliozenoko klima, denborarik gehienean, oraingoa baino askoz beroagoa eta hezeagoa izan zen. Erdi Pliozenoan, adibidez (duela 4-3 Ma), batez besteko tenperatura globala, seguru asko, oraingoa baino

materiales depositados en los fondos marinos de la Cuenca Vasco-Cantábrica fueran comprimidos, deformados, plegados, levantados y en parte erosionados, durante más de 10 Ma para dar lugar a los montes vascos y los Pirineos (el Oligoceno). Solamente así podemos entender que corales y rudistas formados en los mares cretácicos a poca profundidad de agua, podamos verlos hoy en torno a los mil metros de altura (Aizkorri, Aralar, Arno, etc.) y que los materiales depositados en las profundas cuencas Cretácicas y Terciarias afloren en los acantilados de nuestra costa actual.

El desgaste del paso del tiempo: El modelado

El paisaje de Aizkorri es el resultado último de toda su historia, desde su origen geológico (tipo y disposición de las rocas), la meteorización (química y/o física, dependiendo de los distintos regímenes climáticos) y la actividad humana (a lo largo de las distintas culturas). En los últimos 23 Ma de su historia, mientras los sedimentos ya convertidos en roca eran modelados hasta crear los valles y montañas de hoy, han sido varios los regímenes climáticos reinantes en estas latitudes.

A tenor de los registros del sur de Navarra (Bardenas Reales, Murelaga) el Oligoceno-Mioceno se caracteriza por la erosión de los nuevos relieves, bajo un régimen climático más frío al inicio y cálido-húmedo durante el Mioceno medio. En una primera instancia, en Aizkorri observamos que para que hoy afloren las calizas del cretácico inferior, todo el registro sedimentario marino que se había depositado sobre las mismas, ha sido desmantelado. Esta fase netamente erosiva debió tener lugar durante la propia fase de elevación de estos materiales o inmediatamente posterior a ella, ligada al carácter "joven" del relieve y de su altitud/elevación (Eoceno superior-Mioceno). Pudo dar, como resultado de la erosión, un relieve muy llano (peniplanizado) a partir del cual se fueron labrando las redes fluviales que hoy conocemos.

El Terciario acaba en el período Plioceno, que transcurre entre hace 5,4 y 2,5 millones de años. El clima del Plioceno fue, en su mayor parte, mucho más cálido y húmedo que el actual, siendo en el Plioceno Medio (entre hace 4 y 3 Ma.) la temperatura global media posiblemente unos 3ºC superior a la actual (Dowsett, 1999). El nivel del mar estaría situado a unos treinta metros por encima de la cota actual, debido al menor volumen de hielo acumulado en la Antártida y en Groenlandia. Es por tanto probable, aunque no demostrable, que las calizas de Aizkorri estuvieran en condiciones

3 ºC altuagoa izango zen (Dowsett, 1999). Itsasoaren maila orain baino hogeita hamar bat metro gorago zegoen, Antartikan eta Groenlandian izotz bolumen txikiagoa baitzegoen pilatuta. Litekeena da, beraz, frogatu ezin den arren, Aizkorriko kareharriak ordurako airepean egotea, subaereoak izatea, eta Pliozenotik gaur egunera arte (azken 5 Ma) klimak izandako aldaketen eragina zuzenean jaso izana.

Erdi Pliozenoko aldi epel haren ondoren, aldi hotz laburrak izan ziren elkarren segidan eta izotza pilatzen hasi zen Amerikaren eta Europaren iparraldean eta icebergak sortu ziren Atlantikoaren iparraldean. Kuaternarioa, beraz, ingurumen aldetik aldaketa bortitz eta handiko garaia izan zen eta aldaketa haiek latitude guztiei eragin die neurri handiagoan edo txikiagoan (4. irudia).

Glaziarretan elurra eta izotza pilatzeko, neguan prezipitazio ugariak behar dira, baina funtsezkoa da elur eta izotz hori udan ez urtzea ere. Lurraren ardatzaren inklinazioa txikitu eta ipar hemisferioko latitude altuetako udan intsolazioa jaisteak, orbitaren eszentrikotasuna handia izateak eta udako solstizioan eguzkia oso urrun egoteak glaziazioa ekarri zuten. Pliozeno-Kuaternarioko joera orokorra hotzera egitea izan zen, baina Kuaternarioan igo egin zen ziklo glazialen oszilazio termikoa, batez ere azken milioi urtean.

Aizkorrin eta San Adriango tunelaren inguruetan hainbat "lekuko" klimatiko identifika daitezke, baina oraindik ez dakigu zer aro glaziar edo interglaziarri dagozkion.

Aizkorri mendilerroan, ez da identifikatu ebidentzia morfogenetiko glaziarrik; Aralarren bai, ordea: zirkuak, glaziar-haranak, morrenak, kubetak, luzetarako eta zeharkako profilak, leunduak, ildoak eta ildaskak, balea bizkarrak eta abar.



4. irudia. Azken 5 Ma urteetako itsas foraminiferoen oskoletan erregistratutako Oxigeno 18 kontzentrazioak (Ocean Drilling Project) hotzerako joera orokorra adierazten du eta gorabehera handiagoak ditu azken Ma tartean. (Uriarte, 2009-tik hartua).

Figura 4. *La concentración de oxígeno 18 registrada en los caparazones de los foraminíferos marinos de los últimos 5 Ma. (Ocean Drilling Project) indica una tendencia generalizada al frío, con oscilaciones más acusadas en el último Ma. (Tomado de Uriarte, 2009).*

subaéreas y hayan sido afectadas directamente por las variaciones climáticas que han tenido lugar desde el Plioceno hasta la actualidad (últimos 5 Ma.).

Tras este intervalo cálido del Plioceno Medio, durante cortos y sucesivos períodos fríos, el hielo empezó a acumularse en el norte de América y de Europa, y los icebergs hacían acto de presencia en el norte del Atlántico. La Era Cuaternaria es, por lo tanto, una época de bruscos e importantes cambios ambientales, que han afectado con mayor o menor intensidad a todas las latitudes (Fig. 4).

Para que la nieve y el hielo se acumulen en los glaciares, además de abundantes precipitaciones de nieve invernal, es esencial que ésta no se derrita en verano. El descenso de la insolación en los veranos de las latitudes altas del hemisferio norte, por la disminución de la inclinación del eje terrestre, junto con la alta excentricidad de la órbita y máxima lejanía del Sol durante el solsticio de verano, favoreció la entrada en una glaciación. La tendencia general del Plioceno-Cuaternario ha sido hacia al frío pero con un aumento de la oscilación térmica de los ciclos glaciales durante el Cuaternario, especialmente en el último millón de años.

Son varios los "testigos" climáticos que podemos identificar a lo largo de Aizkorri y en las cercanías del túnel de San Adrian aunque, a día de hoy, todavía no sepamos a cual de las etapas glaciares o interglaciares corresponden.

En la sierra de Aizkorri no han sido identificados evidencias morfogenéticas glaciares como en la Sierra de Aralar: circos, glaciar de valle, morrenas, cubetas y umbrales, perfiles longitudinal y transversal, pulidos, acanaladuras y estrías, lomos de ballena, etc.

Las evidencias morfogenéticas periglaciares, sin embargo, tienen un profuso desarrollo, sobre todo en la vertiente norte o noreste de la sierra: la formación de materiales detríticos, escombreras, debido a la sucesión de hielo-deshielo, sobre el suelo y en las rocas, gelivación o solifluxión, gelifracción o crioclastia, suelos poligonales, pisadas de vacas, césped almohadillado, pedreras y coladas de derrubios, etc. (Fig. 5).

Algunas de ellas incluso rellenando cavidades kársticas, como en el sistema kárstico del túnel de San Adrian. La formación y acumulación de grandes bloques calizos que tapizan la vertiente N de Aizkorri han sido atribuidos al Pleistoceno Inferior-Medio (Latasa y Ugarte, 1990).

Los rasgos morfogenéticos pluvio-fluviales, indicadores de un predominio de las corrientes de agua, como la excavación de los

Ebidentzia morfogenetiko periglaziarrek, aldiz, garapen zabala dute, batez ere mendilerroaren iparraldeko edo ipar-ekialdeko isurialdean: material detritikoak, arroka zati angelutsuak eratzea, izozte-desizozte segidagatik, lurrean eta harkaitzean, gelibazioa edo solifluxioa, gelifrakzioa edo krioklastia, lur poligonalak, behien oin-arrastoak, kuxin-moduko soropila, hartxingadiak eta higakinen koladak eta abar. (5. irudia) Horietako batzuk barrunbe karstikoetara sartzen dira; adibidez, San Adriango tuneleko sistema karstikora. Aizkorriren iparraldeko isurialdea janzten duten kareharrizko bloke handiak Behe-Erdi Pleistozenoan eratu eta pilatu zirela esan izan da (Latasa eta Ugarte, 1990).

Ur-korronteak nagusi zirela adierazten duten euri-ibaien bereizgarri morfogenetikoak, adibidez, ibai-haranak eta horien jalkinak (meandroak, terrazak, gora egiten duen higadura, karkabak eta labarrak, etab.), zulaketa-ildoak sortzen dituzte mendilerroaren ekialde eta mendebaldean eta mugatu egiten dute iparraldean nahiz hegoaldean (6. irudia). Eta urak ere ematen du forma, nabarmen, Aizkorriko mendilerroaren kanpoan nahiz barruan, eta horrek sortzen du karsta.

Urak lurzoru organikoa zeharkatzen duenean, materia organikoa deskonposatzetik sortutako CO_2 sartzen du eta azido ahul bat sortzen da, azido karbonikoa. Azido karbonikoak karbonatozko arroka ukitzen duenean, erreakzioa sortzen da kaltzitarekin eta kareharria desegin egiten da, haustura edo hasierako etena handituz eta hor hasten dira barrunbeak sortzen. Uraren disoluzioak eta higadurak bideak handitu ahala, lurpeko galeria-sare bat sortzen da, mundu ezezagun eta erabat desberdina sortzen da hor eta jende gehienarentzat behintzat irudikatu eta iritsi ezina den edertasun naturala du mundu horrek.

valles fluviales y sus depósitos (meandros, terrazas, erosión remontante, cárcavas y barrancos, etc.) surcan la sierra por el E y el W y limitan tanto al N como al S (Fig. 6). Y es también el agua la que modela, de forma significativa, tanto el exterior como el interior de la Sierra caliza de Aizkorri dando lugar al karst.

El agua al atravesar el suelo orgánico, incorpora el CO_2 procedente de la descomposición de la materia orgánica, formando un ácido débil, el ácido carbónico. Ésta al contactar con la roca reacciona con la calcita y disuelve la caliza, agrandando la fractura o discontinuidad inicial y dando comienzo así a la formación de cavidades. A medida que la disolución y erosión del agua agranda los conductos, se genera un entramado de galerías subterráneas que forma un mundo interior desconocido y totalmente diferente, con una belleza natural inimaginable e inaccesible para la inmensa mayoría de la gente.

La geomorfología de áreas kársticas está dominada por estructuras de disolución como son las dolinas, poljés, simas, lapiaces y cuevas, todas ellas formadas por la acción del agua pero también se observan formas de crecimiento en el interior de las cavidades en forma de estalactitas, estalagmitas, coladas, etc. El terreno en la zona de pendientes favorece la escorrentía superficial previa a la infiltración, creando sobre la superficie caliza desnuda o parcialmente cubierta distintos tipos de lapiaz en surcos.

Los sistemas kársticos no son sistemas estables, evolucionan siguiendo las variaciones del nivel base del agua. A medida que el

5. irudia. Ertz angeutsuzko kareharrizko bloke eta klastoak pilatuta, grabitazio bidez, Aizkorriren iparraldeko isurialdean.

Figura 5. *Acumulación de bloques y clastos calizos angulosos, de forma gravitacional, en la vertiente Norte de Aizkorri.*



6. irudia. Aizkorriko gailur-lerroa (zuriz), San Adrianen kokapena eta haranek markatutako arro hidrografikoa (grisa-beltza). LIDAR datuetatik abiatuta.

Figura 6. *Cresterío de Aizkorri (en blanco), localización de San Adrian y la cuenca hidrográfica marcada por los valles (gris-negro). A partir de datos LIDAR.*

Eremu karstikoen geomorfologian disoluzio-egiturak dira nagusi; hala nola dolinak, poljeak, simak, lapiazak eta haitzuloak, denak urak eginikoaren eraginez sortuak, baina badira barrunbeetan garatutako hazkuntza-moduak ere; esaterako, estalaktitak, estalagmitak, koladak eta abar. Maldatsua izateak lagundu egiten dio infiltrazio aurreko azaleko isurketari, eta hala, kareharrizko azal soilean edo partzialki estalian, hainbat lapiaz mota sortzen dira ildoetan.

Sistema karstikoak ez dira sistema egonkorrak, eboluzionatu egiten dute uraren oinarri mailaren gorabeheren arabera. Kanpoko ibai haranak bere tokia hartu ahala, uraren kota jaitsi egiten da itsasoratzeko bidea bilatzeko eta karstaren eremu aktiboak urarekin batera aldatzen dira lekuz (7. irudia).

Karstaren fase aktiboan, galeriak urak hartuta daudenean (baldintza freatikoak), higadura (kimikoa eta fisikoa) izaten da nagusi eta ez sedimentazioa, harkaitzen ahultasun guneak aprobetxatuz. Ebakidura zirkularreko bideak sortzen ditu, horma harritsuak uraren arretasunaren (jalkinekin edo gabe) higaduragatik (scallops) zizelkatuz.



7. irudia. Maila karstikoen bilakaera, maila freatikoaren edo oinarriko mailaren enkailatzeari jarraituz.

Figura 7. *Evolución de los niveles karsticos, siguiendo el encajamiento del nivel freático o nivel de base.*

valle fluvial exterior se va encajando, el agua desciende en cota en busca de su salida al mar y las distintas zonas activas del karst se desplazan junto con él (Fig. 7).

Durante la *fase activa* del karst, cuando las galerías están inundadas por agua (condiciones **freáticas**), prima la erosión (química y física) frente a la sedimentación, aprovechando las zonas de debilidad de la roca. Genera conductos de sección circular, esculpiendo las paredes rocosas por la erosión de la turbulencia del agua (con o sin sedimento) (*scallops*).

A medida que el nivel del agua va descendiendo, la sección circular de la cueva adquiere la forma de cerradura, indicando el tránsito de condiciones de inundación total (freáticas) a condiciones **vadosas** (agua y aire) (Fig. 8). En épocas de baja energía la carga sedimentaria se deposita en el fondo de las cavidades kársticas y pueden decantar los limos y arcillas que el agua lleva en suspensión.

Cuando la galería pasa a estar en condiciones *no activas* (condiciones **vadosas**) la sedimentación, tanto detrítica, procedente del exterior o generado en el interior de la cueva, como la carbonatada, alcanza su protagonismo. Es también en esta fase cuando las cuevas son ocupadas, con mayor o menor intensidad, por los seres vivos que transitan en las inmediaciones: aves, macro- y microvertebrados y, entre ellos, los humanos.

El proceso de karstificación de Aizkorri tiene un desarrollo preferencial hacia el sur (Alonso y Ugarte, 1981) debido a la inclinación generalizada de los estratos hacia el Sur y al abrupto escalón existente hacia las cabeceras de los ríos Ubao-Oñate, Urola y Oria, de más de



8. irudia. A) Bide karstikoaren garapena, faila baten noranzko berean. B) Bilakaera freatiko-ase gabea San Adriango tunelaren albo bateko bidean.

Figura 8. *Desarrollo del conducto karstico, a favor de una falla. B) Evolución freático-vadosa del conducto lateral del túnel de San Adrian.*

Uraren mailak behera egin ahala, haitzuloaren ebakidura zirkularrak sarraila forma hartzen du eta horrek esan nahi du erabat urak hartuta egotetik (freatikoak) ase gabeko egoerara (ura eta airea) igarotzen dela (8. irudia). Energia baxuko garaietan, sedimentu-zama barrunbe karstikoen hondoan jalkitzen da eta urak esekita daramatzan lohiak eta buztinak dekanta daitezke.

Galeria ez aktibo dagoenean (ase gabe), sedimentazioa protagonista bihurtzen da, bai sedimentu detritikoarena, kanpotik datorren edo haitzuloaren barnean sortutakoa, bai karbonatozkoa. Fase horretan sartzen dira inguruetan ibiltzen diren izaki bizidunak ere, gehiago edo gutxiago, haitzuloetara: hegaztiak, makro- eta mikroornodunak eta, tartean, gizakiak.

Aizkorriko karstifikazio-prozesuak hegoalderanzko garapena du batez ere (Alonso eta Ugarte, 1981), estratuak edo geruzak, oro har, hegoalderantz inklinatuta daudelako eta Ubao-Oriate, Urola eta Oria ibaien goi-ibarretaranzko koska bortitzagatik; toki batzuetan 1.000 m-tik gorakoa da (karbonatozko mendigunearen iparraldeko hegala). Hala, Aizkorri mendilerroaren iparraldeko hegal osoko iturburu eta iturriek ez dute ia garrantzirik, Ubaok (edo Urzulo euskaraz) izan ezik. Araian daudenek, aldiz, bai (Arakil ibaia). Galeria karstiko asko dago Aizkorri mendilerroan. Batzuk garaiera handikoak dira eta antzinako karstifikazioko aldi bati dagozkio. Ez dute loturarik oraingo sistemarekin eta/edo ur ibilbideak osatzen dituen oinarriko mailarekin (Ugarte, 1982). Leize horizontalak dira, ez-aktiboak, eta garaiera ezberdinekoak batzuk eta besteak; 400 m-tik gora daude denak (800-400 m-an, 800 m-an eta 1.000 m-tik gora). Maila hauek iraganean sakoneran gutxi garatutako oinarriko maila freatiko bati atxekituta (forma biribilduen nagusitasuna kontuan hartuz), eta ur emari handiko garaietan (galerien neurri handiagatik) sortuak behar dute izan, gaur egungo erliebetik erabat deslotuta dauden koba hauek (Eraña *et al.*, 2010). Bereizgarri horiek Aizkorriren historia karstikoaren hasierara garamatzate. Llopis Lladó-ren (1957) arabera, Miozenotik hasi (hondar-erliebeak eta penelautadak 100 m-ko mailatik gora) eta Pliozenora artekoak (penelautada partzialak 700 m eta 450-550 m inguruan) izan daitezke. Erliebeak eta, beraz, 400 m-tik behera kokatutako oinarriko mailarekin lotutako prozesu geologikoak Kuaternarioan kokatzen ditu egile horrek.

San Adriango tunela 980 m inguruko garaieran dago eta garai bateko bide karstiko subhorizontal bati dagokio. Bide hori ipar-mendebalde eta hego-ekialde noranzkoko faila baten paraleloan dago eta faila hark baldintzatu egin zuen dolinaren eratzea (tunelaren ipar-mendebaldeko irteera) eta bide karstikoa bera (8a irudia). "Zaharrenak" diren gainerako galeriek bezala, honek ere dimentsio dezimetriko handiak ditu eta alboetan galeria bihurgunetsu eta diskretuak, hegoalderantz. San Adriango tuneleko antropizazio errepikatua dela-eta, ezin da garbi ikusi betetzearen estratigrafia geologikoa. Alboetako galerietan, aldiz, kaltzitaz zementatutako

1.000 m. en algunos puntos (el flanco N de la sierra carbonatada). Así, las surgencias y manaderos de todo el flanco N. de la Sierra de Aizkorri apenas tienen importancia -con la excepción de Ubao- en contraposición a los existentes en Araya (río Araquil). En la Sierra de Aizkorri existen numerosas galerías kársticas, muy elevadas en cota y correspondientes a un estadio antiguo de karstificación sin relación con el sistema actual y/o nivel de base que constituyen los cursos de agua (Ugarte, 1982). Cavidades de desarrollo horizontal no activos situados a diferentes cotas, todas por encima de los 400 m (entre 800-400m, en torno a 800m y por encima de los 1000m) obedecen a la existencia, en el pasado, de un nivel de base poco desarrollado en profundidad, de carácter freático (a tenor del predominio de las formas redondeadas), de gran caudal de agua (debido a la enorme magnitud de galerías) y totalmente desligadas del relieve actual (Eraña *et al.*, 2010). Estos rasgos nos remontan al inicio de la historia kárstica de Aizkorri que, según Llopis Lladó (1957) podrían remontar desde el Mioceno (relieves residuales y penillanuras por encima de 100m de cota) hasta el Plioceno (penillanuras parciales situadas a cota en torno a 700m y 450-550m). Los relieves y, por tanto, los procesos geológicos relacionados con un nivel de base situado por debajo de los 400m, son asignados al Cuaternario por este autor.

El túnel de San Adrian, situado en torno a los 980m de altitud, corresponde a un antiguo conducto kárstico de trazado subhorizontal y paralelo a la falla de dirección NW-SE que condicionó la formación de la dolina (salida NW del túnel) y el propio conducto kárstico (Fig. 8a). Al igual que el resto de las galerías "antiguas", ésta presenta grandes dimensiones decimétricas con sinuosas y discretas galerías laterales hacia el sur. La reiterada antropización del túnel de San Adrian no permite observar con claridad la estratigrafía geológica de su relleno. Las galerías laterales, sin embargo, muestran un relleno de brecha carbonatada cementada por calcita, como resultado de la entrada de las acumulaciones gravitatorias o coluviales depositados a los pies de los escarpes calizos en períodos climáticos fríos y cementadas durante un período húmedo y algo más templado (Fig. 9). Una reactivación hídrica posterior, modela el depósito por procesos fuertemente erosivos. La segunda secuencia de relleno, de carácter más limoso, podría corresponder a la infiltración del suelo, a través de las grietas de la roca y los propios conductos, de carácter limo-arcilloso alternando con períodos de ocupación humana desde el Pleistoceno Superior.

Los arqueólogos han realizado la excavación en estos sedimentos recogiendo testimonios (útiles de hueso o silex, restos de caza, ajuar…) de las diferentes culturas que han ido ocupando el

© A. Aranburu.

9. irudia. Oinarrizko bi sekuentzia, haitzuloaren betegarriarenak, San Adriango tunelean. A) Arrakala karbonatatua, metatze grabitatorioaren emaitza, ondoren higatua. B) Betegarri lohi-hareatsua. Horkoak dira gizakien okupazioak.

Figura 9. *Dos secuencias básicas, de relleno de cueva en el túnel de San Adrian: A) Brecha carbonatada, resultado de la acumulación gravitatoria, posteriormente erosionada. B) Relleno limo arenoso en el que se localizan las ocupaciones humanas.*

karbonatozko bretxa-betekinak daude agerian, garai klimatiko hotzetan kareharrizko malden oinetan jalkitako grabitazio-pilatzeak edo pilatze kolubialak kobara sartu direlako eta garai heze eta epelagoan zementatu egin direlako (9. irudia). Ondorengo erreaktibazio hidrikoak forma eman dio jalkinari higadura handiko prozesuen bidez. Betetzearen bigarren sekuentzia, lohitsuagoa, baliteke harkaitzaren pitzaduretatik eta bideetatik lurzoru lohitsu-buztintsua infiltratu izanaren ondorio izatea; Goi Pleistozenotik gizakia bertan izandako aldiekin txandakatuz.

Arkeologoek indusketak egin dituzte sedimentu hauetan eta tunelean egon izandako kulturen lekukotzak ere jaso dituzte (hezur edo silexez eginiko tresnak, ehizako hondarrak, ostilamendua...). Horrez gain, betegarriaren maila bakoitzeko sedimentuen laginak ere hartu dituzte eta horiek datuak ematen dizkigute kultura haiei zegokien ingurumenari buruz.

Indusketa egindako eremuan jasotako laginak aztertuta ondorioztatzen da betegarrian kareharrien ehunekoa handia dela (laginaren % 60-75), konkrezio gutxi, ioi karbonatatu eduki handiak jalkinetan eta kanpotik ekarritako material aloktono gutxi. Legarrak matrize fin lohi-hareatsu batean daude sartuta eta hareetan ere, finenak nagusitzen dira. Material horiek, seguru asko, kareharriek zituzten lohizko ezpurutasunetatik datoz, kareharrien disgregazio eta disoluziotik askatuta. Ekarpen hareatsu eta lohitsuagoei begira, unitate siliziklastiko supraurgondarren higadurari ere erreparatu beharko zaio; urak eta haizeak haitzuloan sartu izana. Kristal kuartzitiko bakanak biribilduta daude pixka bat, baina azalera matea dute eta, beraz, badirudi modelatu eolikoa dutela.

Sedimentazio-prozesu hori aztarnategi honetan induskatutako maila guztietan azaldu da. Hainbat giza jarduerek bereizten dute aztarnategia (hainbat erabileratako kubetak, etxeak, eraikinak...).

túnel. Al mismo tiempo se recogen muestras del sedimento de cada uno de los niveles del relleno, que nos aportan datos sobre el medioambiente en que se desarrollaron esas culturas.

Del análisis de las muestras recogidas en la zona de la excavación se concluye que el relleno presenta porcentajes elevados de cantos calizos (60 a 75% de la muestra), muy poca concreción, elevado contenido de iones carbonatados en el sedimento y escasa representación de materiales alóctonos aportados desde el exterior. Los numerosos cantos están incluidos en una matriz fina limo arenosa con predominio, también en las arenas, de las más finas. Posiblemente estos materiales provienen de la disgregación y disolución de las calizas que han liberado las impurezas que contenían. También habrá que pensar para los aportes más arenosos y limosos, en la erosión de las unidades siliciclásticas supraurgoniano y que han sido introducidos en la cavidad por arrastre de las aguas y del viento. Los pocos cristales cuarcíticos están algo rodados pero con su superficie mate lo que parece indicar un posible origen eólico.

Este proceso de sedimentación está presente en todos los niveles excavados de este yacimiento, al que diferencian algunas actuaciones humanas (cubetas de diferentes usos, hogares, construcciones…).

A. Moraza.

10. irudia. San Adriango tunela goitik ikusia.
Figura 10. *Vista de pájaro del túnel de San Adrian.*

11. irudia. San Adriango tunelaren atzeko aldea.
Figura 11. *Parte trasera del túnel de San Adrian.*

J. Agirre.

2.2. Flora eta fauna San Adrianen
Flora y fauna en San Adrian

J. Garmendia

San Adriango pasabidea Aizkorriko mendizerraren eta Aratz mendiaren artean dago, 1.000 metro inguruko garaieran. Hori dela eta, izaera menditarra garbi ageri duen lekua da. Inguru hauetan horren ugariak diren euri, langar eta elurteek kareharrizko substratua modelatu dute, San Adriango pasabidea bera eta inguruko erlaitz, harkaizti, narda edo hartxingadi eta lapiatz karstikoak sortuz.

Garaiera handiak eta prezipitazio ugariek inguruan pagadi mardulak garatzea ekarri dute. Baso hauen formazio ia monoespezifikoak dira, hau da, pagoa da espezie dominatzailea. Pagadietako basopeak oso ilunak izanik, gutxi dira ilunpe horretan gara daitezkeen landare zurkarak. Hala ere, pagoarekin batera haritz kandugabea *(Quercus petraea)*, garatxo belarra *(Daphne laureola)*, gorostia *(Ilex aquilofium)*, otsalizarra *(Sorbus aucuparia)*, eta hostazuriaren *(Sorbus aria)* moduko zuhaitz eta zuhaixkak ere agertzen dira. Landare belarkarei dagokionez, badira lilipa arrunta *(Narcissus pseudonarcissus)* eta Pirinioetako eszilaren *(Scilla lilio-hyacinthus)* gisako espezie deigarriak. Udaberrian loratzen diren espezie hauek orban handiak osatzen dituzte pagadi barruko lur gozoko lekuetan. Orkideoak ere ez dira falta baso hauetan, ugariak ez izanda ere hosto luzeko orkideoa *(Cephalantera longifolia)*, *Epipactis microphylla* edota txori habia *(Neottia nidus-avis)* topa ditzakegu, beste espezie batzuekin batera.

12. irudia / *Figura 12.* Lilipa arrunta / narciso de los prados *(Narcissus pseudonarcissus)*

Pagadiak dominatzaile izanik ere, San Adriango erlaitz eta hormetan beste habitat eta landare berezi batzuk ere topa ditzakegu. Erlaitz hauek gehienetan ez dute basoa behar bezala garatzeko baldintza egokirik eskaintzen eta, ondorioz, landare belarkarak nagusitzen dira, erlaitzetako landaredia eta *megaforbioak* (hosto zabaleko landareen komunitateak) osatuz. Harkaitzetako zirrikituetan eta horma ia bertikaletan babesturik, Alpeetako andere-mahatsa *(Ribes alpinum)*, kotoneasterra *(Cotoneaster integerrimus)*, hesilaharra *(Rhamnus cathartica)*,

El paso de San Adrian se encuentra entre la sierra de Aizkorri y el monte Aratz, en una altitud de aproximadamente 1.000 metros. Por ello, es un lugar que muestra claramente su carácter montano. La lluvia, la neblina y las nevadas, tan abundantes en este entorno, han modelado el sustrato calizo, creando así el paso de San Adrian y las repisas, roquedos, pedregales y lapiaces cársticos de los alrededores.

Debido a la gran altitud y la abundancia de precipitaciones, se han desarrollado grandes hayedos en el entorno. Estos bosques son de formación prácticamente monoespecífica; es decir, la haya es la especie dominante. Al ser las orlas de los hayedos muy oscuras, son pocas las plantas leñosas que se pueden desarrollar en ese ambiente oscuro. Aun y todo, también aparecen otros árboles y arbustos junto con la haya, entre los que se encuentran el roble albar (*Quercus petraea*), la laureola (*Daphne laureola*), el acebo (*Ilex aquifolium*), el serbal de los cazadores (*Sorbus aucuparia*), y el mostajo (*Sorbus aria*). En lo que se refiere a plantas herbáceas, hay especies que llaman la atención, como el narciso de los prados *(Narcissus pseudonarcissus)* y la escila del Pirineo *(Scilla lilio-hyacinthus)*. Estas especies florecen en primavera y forman grandes manchas dentro del hayedo, en sitios donde encuentran tierras fértiles. Tampoco faltan orquídeas en estos bosques, que aunque no sean abundantes, podemos encontrar, entre otras, la orquídea de hojas largas *(Cephalantera longifolia)*, *Epipactis microphylla* y el nido de pájaro *(Neottia nidus-avis)*.

Aunque los hayedos sean dominantes, también podemos encontrar otros hábitats y plantas especiales en las repisas y paredes

13. irudia / *Figura 13.* *Armeria pubinervis*

14. irudia / ***Figura 14.*** Otabera / aliaga *(Genista hispanica)*.

15. irudia / ***Figura 15.*** Pirinioetako eszila / Escila del Pirineo *(Scila lilio-hyacinthus)*.

txilar burusoila *(Erica vagans)* eta otabera *(Genista hispanica)* zuhaixkak ikus ditzakegu, besteak beste. Belarkaren artean aipatzekoak dira Penintsula iparraldeko endemismoa den *Saxifraga trifurcata* (oso ugaria San Adriango tunel azpiko horma batzuetan) eta espezie mehatxatuak diren *Armenia pubinervis*, Bubaniren bioleta *(Viola bubanii)* eta lilipa arrunta *(Narcissus pseudonarcissus)*.

Landare formazio natural horiez gain, agerikoa da pertsonen mendeetako eragina, bereziki abeltzaintzarena. Eragin horren lekuko dira, pasabidearen inguruan dauden larre harritsu, otadi-txilardi eta iratzediak. Ganaduarentzako bazkalekuak lortu asmoz, belardi eta sastrakadi hauek berezko basoak ordezkatu zituzten. Hala ere, ganadu karga txikiko eremuetan basoaren garapena agerikoa da eta zuhaizti txikiak garatzen dira. Ganadua bera eta puntualki egiten diren garbiketa lanak dira larre hauek mantentzen dituztenak. Aipatzekoa da zenbait gunetan topa dezakegun gorosti *(Ilex aquifolium)* kopuru handia. Basoetan eta erlaitzetan gertatzen den modura, habitat hauetan lilipa arruntak ugari topa de San Adrian. En la mayoría de los casos, estas repisas no ofrecen las condiciones idóneas para que se desarrolle adecuadamente un bosque y, por lo tanto, prevalecen las plantas herbáceas, formando la vegetación de repisas y megaforbios (comunidades de plantas de hojas grandes). Cobijadas en las grietas de los roquedos y las paredes casi verticales, podemos ver, entre otros, estos arbustos: la grosella alpina *(Ribes alpinum)*, la bellomera *(Cotoneaster integerrimus)*, el espino cerval *(Rhamnus cathartica)*, el brezo común *(Erica vagans)* y la aliaga *(Genista hispanica)*. Entre las especies herbáceas destacan el endemismo del norte de la península *Saxifraga trifurcata* (muy abundante en algunas paredes que se encuentran debajo del túnel de San Adrian) y las especies amenazadas *Armenia pubinervis*, la violeta *Viola bubanii* y el narciso de los prados *(Narcissus pseudonarcissus)*.

En el transcurso de los siglos siguientes las pretensiones castellanas por crear un eje de comunicación a través de paso de San Adrian se vieron entorpecidas por la inestabilidad existente en el área. Su proximidad a la frontera navarra (poco mas de 6 km. en línea recta) lo convertirá en una zona apropiada para la actuación de malhechores y bandidos, en un contexto muy similar al resto de la frontera entre Gipuzkoa y Álava con Navarra, y haciendo necesaria la fortificación del área. A partir de este momento las referencias a este castillo serán constantes en la documentación escrita.

Un informe de finales del siglo XVI (1592) define la fortaleza como una construcción de ciento ochenta y dos pies de largo y cuarenta de ancho con dos puertas; la primera orientada a poniente, marcando el paso a Álava, y la segunda a levante donde todo el ancho de la cueva estaba cubierto por una pared, exceptuando la puerta, con algunas ventanas para que la luz entrase a la casa edificada en el interior. Las defensas estaban dispuestas en la parte alta del Túnel, sobre la plataforma meridional, en la cual se observaba una torre de veinticuatro pies quedando la zona de acceso defendida por estas construcciones.

El Informe de 1592 nos presenta de una manera detallada la situación de la fortaleza de San Adrian, si bien la descripción es prácticamente como su partida de defunción puesto que no existe constancia de que las obras propuestas se llevaren a cabo por lo que la ya de por si deficiente conservación no hará sino acentuarse aún más derivando finalmente en el abandono definitivo de la misma. La coyuntura política del momento lo hacía ya innecesario tras la pacificación del entorno a partir de mediados del siglo XV con el final de las circunstancias que favorecieron la aparición del bandidaje bajomedieval y los conflictos banderizos y por otro lado con la conquista del Reino de Navarra en 1512. El gobierno de la fortaleza de San Adrian estuvo fundamentalmente en manos de



Archivo del territorio historico de Alava.

75. irudia. San Adriango gaztelua-ren planoa. 1592.

Figura 75. *Plano en planta del Castillo de San Adrian hacia 1592.*



76. irudia. Ortuño Agirre San Adriango tenente edo alkate izendatzen duen Hornidura Erreala (1536).

Figura 76. *Real Provisión designando a Ortuño Aguirre como nuevo tenente o alcaide de la Fortaleza de San Adrian (1536).*

Archivo General de Simancas. C Sueldo. 2ª-376

Garci Perez de Orio izan zen, 1294an, eta ondoren etorri ziren beste asko, berriz, gehienak igarobidearen inguruko herrietakoak (Zegama, Zalduondo, Albeiz...). Aialatarren leinua XV. mendearen zatirik handienean eta XVI.aren hasieran izan zen alkatetzan, harik eta Aguraingo kondeari jabetza guztiak kendu zizkioten arte. Ondoren etorri ziren Diego Martínez de Álava (1521-1536), Fortun López de Escoriaza (1536-1569), Luis de Isunza (1569-1615) eta, azkenean, 1615etik aurrera, Ortuño de Aguirre-Zuazo, eta azken horrek, handik bi urtera, Errege-Pribilegioa lortu eta, beraz, alkatetza haren maiorazkoari lotuta gelditu zen betiko. Familia hark "alcaide de la fortaleza y castillo de San Adrian", alegia, San Adriango gotorlekuko alkaide kargua izan zuen hurrengo belaunaldietan, beste ohorezko titulu batzuekin batera. Handik urte batzuetara Montehermosoko markes bihurtu ziren eta, ondoren, Ezpeletako konde. Titulu hori izaten jarraitzen dute gaur egun.

77. irudia. Gazteluaren Dorre Nagusiaren zimenduak 2008. urtean aurkitutakoak.
Figura 77. *Cimientos de la torre del Homenaje documentada en 2008.*

una serie de alcaides designados directamente por la Corona entre los principales linajes nobles del Territorio, aunque en la práctica su gobierno recaiga principalmente en una serie de tenentes o delegados designados por esos alcaides que se encargarán de mantener la seguridad del camino y de cobrar una serie de derechos a los viajeros y mercaderes que atravesaban ese paso. El primero de esos tenentes documentados será el antes referido Garci Perez de Orio en 1294 al que le seguirán otros muchos mas mayormente procedentes de las localidades situadas en las proximidades del paso (Zegama, Zalduendo, Albeniz,...). El linaje de los Ayala disfrutó de su alcaldía durante buena parte del siglo XV y principios del XVI hasta que el conde de Salvatierra fuera privado de todas sus propiedades. A él le seguirán Diego Martínez de Álava (1521-1536), Fortun López de Escoriaza (1536-1569), Luis de Isunza (1569-1615) y finalmente a partir de 1615 Ortuño de Aguirre-Zuazo quién dos años después logrará un privilegio real por el que esta alcaldía quedaba agregada a perpetuidad a su mayorazgo. Esta familia disfrutará del cargo de *"alcaide de la fortaleza y castillo de San Adrian"* durante las siguientes generaciones como uno de sus títulos honoríficos mas, convertidos años después en marqueses de Montehermoso y posteriormente en condes de Ezpeleta que actualmente lo siguen disfrutando.

78. irudia. Dorre Nagusian harrian landutako eskailerak (2009).
Figura 78. *Escalones labrados en la roca en la zona de la Torre del Homenaje (2009).*

Azken urte hauetan eginiko lan arkeologikoek aukera eman digute deskribatutako elementu batzuk identifikatzeko eta hala, ikusi dugu, defentsa-sistema ekialdera zegoela bideratuta, Nafarroa aldera, alegia. Hondakin horietako asko kontserbazio-egoera txarrean edo eraikuntza-lan berriagoen azpian estalita daude. Hala, tunelaren zatirik garaienean, garai bateko dorre nagusiari dagozkion zimenduak identifikatu ahal izan ditugu; baita sartzeko azken maldan kontrolerako jarritako eraikinaren zimenduak (ia 1,20 m-ko zabalerako hormekin), igarobidea kontrolatzen zuten egitura ligneoari eusten zioten egurrezko horma-zulo ugarien hutsuneak eta azken malda hasten den tokian, galtzadaren azpian kokatutako horma handi baten hondakinak eta plataforma handia ere.

Los trabajos arqueológicos desarrollados durante estos últimos años nos han permitido identificar algunos de los elementos descritos, y que nos presentan un sistema defensivo claramente orientado hacia el Este, es decir hacia Navarra. Estos restos se encuentran en muchos casos en deficiente estado de conservación o bien sepultados bajo construcciones más recientes. De esta manera se han podido identificar los cimientos correspondientes a la antigua Torre del Homenaje en la parte más alta del Túnel o los de la construcción dispuesta para controlar en la última rampa de acceso (con muros de casi 1,20 m. de anchura), los huecos de los numerosos mechinales de madera que sustentarían la estructura

79. irudia. Tunelatik kanpo zeuden eraikuntzen zimenduak.
Figura 79. *Cimientos de las construcciones relacionadas con el castillo fuera del Túnel*

A. Izagirre

Gaur egun, zutik dagoen hondakin bakarra tunelaren sarrerako arkua da, baina ñabardura batzuk ere aipatu behar dira, hondakin horiei lotu izan zaizkien mito batzuk gezurtatzeko. Tunela ekialdetik ixten duen horma eta tuneleko arku irekia aipatu dugun gazteluaren azken ebidentziak direla interpretatu izan ohi da. Eginiko lan arkeologikoek aukera eman digute bi baieztapenak goitik behera gezurtatzeko; izan ere, arku hori, jatorrian, baliteke gotorlekurako sarbidearen parte izatea, baina oraingo traza nabarmen dago aldatuta, azken mende honetan bakarrik, gutxienez, hiru aldiz berreraiki baitute. Arkua txertatuta duen horma ere berreraikitze berantiar baten emaitza da. Aro Modernoaren (XVII. edo XVIII. mendea) lehen uneetan eginikoa izango da lan hori seguru asko, gotorlekua abandonatu eta toki hartan benta berreraiki ondoren.

Datozen urteetako lanek gotorleku garrantzitsu honi buruzko datu berri eta interesgarriak emango dizkigute seguruenik eta, oraindik ezezagun zaizkigun alderdi batzuk argitu ahal izango ditugu.

lignea que controlaba el paso o los restos de un muro de grandes proporciones situado bajo la calzada y la gran plataforma existentes en el punto de arranque de la última pendiente.

Hoy en día el único resto que se conserva en pie es el arco de acceso al Túnel, si bien a este respecto cabe realizar algunas matizaciones que quieren desmentir algunos de los mitos que acompañan a estos restos. Tradicionalmente se ha venido interpretando al muro que cierra el Túnel por el Este y su arco abierto como las últimas evidencias de este castillo al que nos estamos refiriendo. Los trabajos arqueológicos realizados nos han permitido desmontar totalmente ambas afirmaciones, puesto que sí en origen ese arco pudo formar parte del acceso a esta fortificación, su traza actual ha variado sensiblemente al haber sido reconstruido en al menos tres ocasiones solamente durante el último siglo. El muro sobre el que se encuentra inserto es fruto también de una reconstrucción tardía, seguramente efectuada en los primeros momentos de la Edad Moderna (siglos XVII ó XVIII), y tras el abandono de la fortaleza y la reconstrucción en su emplazamiento de la venta.

Las labores que se irán desarrollando durante los años siguientes nos proporcionarán muy seguramente nuevos e interesantes datos en referencia a esta importante fortaleza, de manera que podamos ir aclarando algunos de los aspectos que nos resultan desconocidos.

80. irudia. Gotortuta zegoen eraikuntzaren zimenduak. Eta bere barnean aurkitutako burdineria (2013).
Figura 80. *Cimientos de la construcción fortificada situada en la ladera de acceso al Túnel, con detalle de los los herrajes documentados en su interior (2013).*

Capítulo 7. Atala

Edad Moderna y siglo XIX

Aro Modernoa eta XIX. mendea

Kutxateka / Alday funtsa.

7.1. Galtzada Aro Modernoan 1820 urte arte
La calzada en la Edad Moderna hasta 1820

A. Moraza

San Adriango tunelaren irudiarekin lotura estuenetakoa duen elementuetako bat bertatik igarotzen den galtzada da. Tunela eta galtzada komunikazio-bideen ikono bihurtu zaizkigu. Historiografiaren arabera, erromatarrek egina da eta alde horretatik jorratzen da oraindik ere hainbat argitalpenetan. Errealitatea, ordea, ez da hain erromantikoa, ez eta pragmatikoa ere, eta denok ezagutzen dugun edo noizbait pasabidetzat erabili dugun galtzada hori, gehienean, askoz berriagoa da.

Inguru horretan hainbat lan egin izan dira eta horiek aintzat hartuta, erabat baztertuta dago erromatarren garaian bazela galtzada. Ez zen artzainak eta noizbehinkako bidaiariak ibiltzen ziren tokia baino gehiago izan. Bideak (ia bidezidorra dela esan dezakegu) ez zuen ia garrantzizko aldaketarik izan Erdi Aroaren zatirik handienean, ez zuen



© C&E-SGE. 1-151.

81. irudia. Tomas Lopezen Gipuzkoako mapa Bide Errealaren marrazkiarekin (1770).

Figura 81. *Detalle del plano de Gipuzkoa de Tomas López (1770) con el trazado del Camino Real.*

Uno de los elementos que se encuentra más estrechamente relacionado con la imagen del Túnel de San Adrian es precisamente la calzada que lo atraviesa. El túnel y la calzada se han llegado a convertir en todo un icono de las vías de comunicación. Tradicionalmente la Historiografía había atribuido su construcción a los romanos, y como tal aún se viene tratando en distintas publicaciones. La realidad, sin embargo, es mucho menos romántica y pragmática, y ese camino calzado que todos conocemos o que alguna vez hemos transitado data mayormente de un momento bastante más reciente.

Los distintos trabajos realizados en la zona descartan rotundamente la existencia de un vial calzado ya existente en época romana, el cual no pasará de ser una zona de tránsito empleada tradicionalmente por pastores y viajeros ocasionales. Este camino, que casi podemos definirlo como vereda, se mantendrá casi sin alteraciones de relevancia durante buena parte de la Edad Media, sin apenas obras sin apenas obras en su infraestructura, y solamente apto para caballerías y caminantes.

Una situación que no parece que se modificará hasta casi finales de la Edad Media. La conquista de los territorios de Álava, Gipuzkoa y el Duranguesado por Castilla en torno al año 1199-1200 traerá una serie de importantes cambios en el entramado social, político y económico de la zona. A partir de este momento Gipuzkoa se irá transformando en un territorio de tránsito, de comunicación entre la Meseta y el Cantábrico y la Aquitania francesa, y ello se manifestará con el impulso a la creación de una red viaria consolidada que cubra esos objetivos. Pero contra a lo tradicionalmente afirmado, la auténtica "Puerta" de Gipuzkoa en esta época no estará ubicada en San Adrian, si no en Arlaban por un serie de razones de peso (menor altura, facilidad de paso, mantenimiento menos costoso), las cuales siempre gravaran en contra del paso por Aizkorri. De esta manera no será hasta el siglo XVI, quizás ya para la segunda mitad del XV, cuando este antiguo camino secundario se transforme en un vial de primer orden, atrayendo a pasajeros y mercaderes que atravesarán su paso proporcionándole renombre internacional a lo que se conocerá como la "Peña Horadada". San Adrian pasará a convertirse con Arlaban en el principal acceso a Gipuzkoa desde Álava, si bien en la pugna desarrollada por ambos puertos por acaparar ese tráfico el nuestro siempre saldrá malparado. Será en este período, posiblemente a mediados

ia azpiegitura-lanik izan eta zamarientzat eta oinezkoentzat bakarrik zen erabilgarria.

Badirudi egoera hori ez zela aldatu ia Erdi Aroaren amaierara arte. Gaztelak 1199-1200 inguruan Araba, Gipuzkoa eta Durangaldea konkistatu zituenean, hainbat aldaketa etorri ziren inguruko gizarte, politika eta ekonomia-sareetara. Une hartatik aurrera, Mesetaren eta Kantauri itsasoaren eta Frantziako Akitaniaren arteko igarotze-lurralde, komunikazio-lurralde bihurtu zen Gipuzkoa pixkanaka eta horren erakusgarri da jomuga horiek hartzen zituen bide-sare sendoa sortzeari emandako bultzada. Baina esan ohi denaren aurka, garai hartako Gipuzkoako benetako "atea" ez zegoen San Adrianen, Arlabanen baizik. Pisuzko arrazoiak daude horretarako (garaiera txikiagoa, igarotzeko erraztasuna, mantentze-lanen kostua txikiagoa), eta Aizkorriko igarobidea denetan da galtzaile. Hala, XVI. mendera arte, agian XV. mendearen bigarren erdian ere bai, ez zen bigarren mailako antzinako bide hori lehen mailako bide bihurtu eta orduan hasi zen bidaiariak eta merkatariak erakartzen. Horrela bihurtu zen "Peña Horadada" edo haitz zulatua nazioartean ezagun. Arlabanekin batera, Arabatik Gipuzkoara sartzeko sarbide nagusia bihurtu zen San Adrian, baina bi ateek zirkulazioa erakartzeko zuten lehian, galtzaile suertatzen zen beti gurea. Garai hartan, seguru asko XVI. mendearen erdialdean, erabaki zuen Probintziak San Adrianen oinezkoak eta zaldizkoak igarotzeko behar ziren azpiegiturak egitea. Hala, hormak eraiki eta zola jarri zioten, zegokion mailan, eta hura izan zen atea zeharkatu zuen lehen galtzada. Galtzadak alboetako bi zintarri ditu, harrizkoak, bertikalean jarriak, eta erdian, luzetara, ertzen nerbio eta harri-koskorrez betetako barnealdea ditu, batez beste 2,30 metroko zabalerarekin. Noranzko-aldaketak ere baditu galtzadak, angelu zuzen-zuzenen bidez jarriak. Oraindik, puntu askotan, trazari *in situ* jarraitzeko aukera dago eta hori ere dokumentatuta gelditu da inguru horretan eginiko esku-hartze arkeologikoan.

Nolanahi ere, galtzadaren garrantzia mantentze-lanei lotutako arazoekin batera, paraleloan, handitu zen. Egiturazko arazoak medio, zamatu egin zuten galtzada eta horrek hipotekatu egin zuen garapenerako ekimen oro. Azken finean, ostrazismora kondenatu zuten. XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan San Adriango atearen espezifikotasunak konpontzeko aztertu zituzten memorialek beti nabarmentzen zituzten honako ezaugarri hauek:

- bidearen erabilera intentsiboa eta eguraldi zakarra medio, urtero galtzadaren zolak eta azpiegiturek kalteak izaten zituzten: eustehormak erortzea, luiziak mendi-hegalean, zubiak eraistea...
- trazadura, toki askotan, 800 metrotik gorako garaieratik igarotzen zenez, neguan, denbora luzean, moztuta egoten zen zirkulazioa.

del siglo XVI, cuando la Provincia decida ejecutar las infraestructuras necesarias para hacerlo apto para el tránsito de personas a pie y a caballo, levantando muros y dándole un pavimento acorde a su rango, siendo precisamente esta la primera calzada que atraviese este puerto. Su traza está formada por dos encintados laterales de piedra dispuestos verticalmente y en medio, longitudinalmente, un nervio o espina de cantos y un relleno de cascajo en su interior, con una anchura media de 2,30 metros. Esta calzada presenta unos cambios de sentido mediante ángulos muy rectos. Esta traza aún puede seguirse in situ en numerosos puntos, habiendo sido también documentada en la intervención arqueológica llevada a cabo en la zona.

82. irudia. XVI. mendeko galtzada zatia Portugaina inguruan.
Figura 82. *Trazado de la calzada del siglo XVI en la zona de Portugaina..*

83. irudia. Aranzadiko teknikariak elurpean, 2011an egindako prospekzioan.
Figura 83. *Técnicos de Aranzadi en una prospección nevada, 2011.*

A. Izagirre

- jenderik gabeko toki batetik igarotzen zen, Zegama eta Zalduondo artean, eta horrek bidelapurrak eta gaizkileak erakartzen zituen eta ia inpunitate osoz aritzen ziren.
- mantentze-lanen kostu handia. Horren harira, Zegamaren eta Seguraren arteko tirabirak etengabeak izaten ziren eta batzuetan, Partzuergo Orokorraren eta Batzar Nagusien artean ere izaten ziren gorabeherak, bidearen kudeaketa eta kontserbazioa nori zegokion erabakitzeko garaian eta noski, kostea bereganatzeko garaian ere.

Mantentze-lanak egiteko zailtasunak eta, batez ere, kostu handiek markatu zuten galtzadaren existentzia laburra baina bizia. Nolanahi ere, ez zen dena gazi eta garratz izan galtzadaren historian; izan ere, Gipuzkoara sart-

De todas formas su importancia crecerá en paralelo a los problemas de mantenimiento que acompañaran su misma existencia. Unos problemas estructurales que lo gravarán de tal forma que hipotecarán cualquier iniciativa de desarrollo, y a la postre lo terminarán por condenar al ostracismo. Los distintos memoriales que a lo largo de los siglos XVI, XVII y XVIII analicen las especificidades del puerto de San Adrian siempre incidirán en una serie pautas comunes:

- el uso intensivo del camino y las inclemencias meteorológicas provocarán anualmente desperfectos importantes en el pavimento de la calzada y en sus infraestructuras (derrumbe de muros de contención, deslizamientos de ladera, destrucción de puentes,...).

84. irudia. Merkatari talde bat zaldiekin San Adriango portua zeharkatzen. (Haufnaglioren grabadotik aterata, 1567).

Figura 84. *Grupo de mercaderes con caballerías atravesando el Puerto de San Adrian (Detalle del grabado de Haufnaglio -1567-).*

zen zen zirkulazioa erakartzearen inguruan Arlabanekin zuen borrokan, garaipen txiki bat lortu zuen Arlaban ofizialki Gurdi Errege Bide, eta beraz, bidaiarien bide, izendatu zutenean, hala, San Adrian Postaren Errege Bidea izan zen; hau da, handik pasatzen zuten Madrilgo Gortetik Europako herri nagusietara zetorren posta, eta alderantziz. Ibilbidea Deba bailaratik igarotzen zena baino egun bat gutxiagoan egiten zen, baina oinarrizko zenbait azpiegitura behar ziren mantentze-lanetarako (langileak, aldatzeko zaldiak, ostatuak, etab.). Aurreraxeago azalduko ditugu horiek.

Denboraren poderioz, garraio-sistemak ere eboluzionatu egin zuen (gurdi ferratuak, orgatxoak, gurdiak eta abar azaldu ziren) eta, horregatik, bide nagusiek ferraren logika gurpilaren logikara egokitu behar izan zuten. Aldaketa horiek ezin ziren egin lehendik zeuden bideei diseinu berria egin gabe. Behar hark ahalegin ekonomiko handia egitea zekarren eta garai hartako Gipuzkoako agintariak ez zeuden ahalegin hura haien gain hartzeko prest. Bideen arloan garai hartan egin zuten politika, eginak zeuden trazaduren mantentze-lanak egitera mugatuta egon zen eta herriei eskatu zieten lan haiek egiteko. Emaitza nola-halakoa izan zela esan daiteke (Achon, 1998:72).

XVIII. mendean gertaera berezi bat izan zuen eboluzio hark; izan ere, Gurdien Errege Bidea eraiki zuten eta probintziako “Camino Padre” edo Bide Nagusi gisa definitu zuten. Bide hura eraikitzeak aldaketa sakona ekarri zuen lurraldearen bide-egiturara eta San Adrianen etorkizunari modu erabakigarrian eragin zioten ondorio politiko eta ekonomikoak ere ekarri zituen. Errege Bide berri hura eraiki aurretik, Batzar Nagusiek San Adriango igarobidean galtzada berria zabaltzeko proiektua sustatu zuten

- su trazado en buena parte por parajes que superan los 800 metros de altura provocará que el tránsito quedase cortado durante largos períodos durante el invierno.
- discurría por un paraje totalmente despoblado entre Zegama y Zalduondo, favoreciendo la acción de bandidos y malhechores que actuaban con casi total impunidad.
- el elevado coste de mantenimiento. Un hecho que provocará una constante fricción entre las poblaciones de Zegama y Segura, y en ocasiones la misma Parzoneria General, con las Juntas Generales por el abono de la responsabilidad de la gestión y conservación del camino.

Las dificultades de su mantenimiento y sobre todo el su alto coste marcarán la breve pero intensa existencia de esta calzada. De todas formas no todo fueron sinsabores y problemas en esa historia puesto que en la pugna que mantenía con Arlaban por acaparar el tráfico que entraba en Gipuzkoa, sí lograran una pequeña victoria al convertirse Arlaban oficialmente en el Camino Real de Coches, y por tanto de viajeros, frente a San Adrian que aparecerá como el Camino Real de Postas, es decir por el que transitaba los correos que venían de la Corte de Madrid a las principales poblaciones europeas o viceversa. Su trayecto era una jornada más corta que el que discurría por el valle del Deba, si bien necesitaba de una serie de infraestructuras básicas para su mantenimiento (personal, caballos de refresco, alojamientos, etc.) que trataremos un poco más adelante.

Con el transcurso del tiempo el sistema de transporte fue también evolucionando (introducción de los carros herrados, carretas, coches,...), y por ello los caminos principales hubieron asimismo necesariamente de adaptarse a esa transición de la lógica de la herradura hacia la lógica de la rueda. Unos cambios que no podían llevarse a cabo sin proceder necesariamente a efectuar el rediseño de los trazados existentes. Una necesidad que suponía el desarrollo de un importante esfuerzo económico, el cual no estaban dispuestas a asumir las autoridades guipuzcoanas de la época cuya política caminera durante este período se limitó al mantenimiento de la red de caminos existentes inquiriendo a los pueblos para ejecutar esas obras con un éxito más que dudoso (Achon, 1998:72).

El siglo XVIII marcará un hito singular en esa evolución al llevarse a cabo la construcción del *Camino Real de Coches*, el que sería definido como el "Camino Padre" o principal conducto de la Provincia. Su construcción conllevará un cambio sustancial en la estructura

85. irudia. Gurdi eta Posten Bide Errealaren marrazkia Gipuzkoa zehar (1780).
Figura 85. *Trazado de los Caminos Reales de Coches y de Postas a través de Gipuzkoa (1780).*


Parte dela Provincia D Alaba.
San Adrian
Villa de Ordiaiz
Villa de Ochate
Villa de Escoriaza
Villa de Salinas
Villa de Ormaiztegui
puz
coa
Gui
Parte D Bizcaya
Parte D Bizcaya.
Vera
Explic.n del Plano, y distrito que ocupa la MNYML Prov.a de Guipuzcoa, del Curso de su Cam.o R.l de Coches, de un trozo de Postas que dicho antecedente se separa en la Villa de Beasain, y sira por el atajo del Puerto de S.ta Adrian de Alaba, del nuebo trozo de Coches Proietado desde la Villa de Mondragon por las de Vergara, y Anzuola de Villarreal, dete das las Republicas que ai en estos Caminos, y de algunas separadas de Vsro de ellos en do ito de la misma Prov.a y fuera del K.o
N.o 1 La Ciudad de Vitoria en la Prov.a de Alaba
N.o 2 La Villa de Salinas 1.a Republica de Guipuzcoa desde dha Ciud.d de Vitoria p.r Francia en el transito del Cam.o R.l de Coches.
N.o 3 La Villa de Escoriaza en el transito del Cam.o R.l de Coches.
N.o 4 La Villa de Anchaualeta en el mismo Cam.o R.l
N.o 5 La Villa Mondragon en el mismo
N.o 6 La Villa de Vergara en la mm.a dha.a d.e del nuebo Cam.o R.l Proietado
N.o 7 La Villa de Plazencia Fuera de dhos Cam.os En cuia Republica se alla la Fabrica R.l de Armeria de su Mag.d
N.o 8 La Villa de Anzuela en el transito del nuebo Cam.o Proietado.
N.o 9 La Villa de Ochate en el transito del Cam.o actual de Coches.
N.o 10 La Villa de Legazpia en el Cam.o R.l por el Pto por Onate
N.o 11 La Villa de Villarreal y Zamarraga en el Cam.o R.l
N.o 12 La Villa de Ormaiztegui en el mismo transito.
N.o 13 La Villa de Beasain en el mismo transito, y aunque la Posta entra en el Cam.o R.l de Guipuzcoa desde Vitoria N.o 1 pasando por Lugares de Alaba N.o 14. Galarreta N.o 15 en Jurisdic.n de Alaba por el Pto de S.ta Adrian N.o 16 por las Villas de Zegama N.o 17 y Segura N.o 18 en Guipuzcoa
N.o 19 La Villa de Villa Franca en el transito del Cam.o R.l
N.o 20 El Lugar de Ychasondo en el mismo transito
N.o 21 La Villa de Legorreta en el mismo.
N.o 22 La Villa de Ycaztegueta en el mismo transito.
N.o 23 La Villa de Alegria en el mismo transito.
N.o 24 La Villa mayor de Tolosa en el mismo transito
N.o 25 El Lugar de Yrura en el mismo transito
N.o 26 La Villa de Amasa Villa bona en el mismo transito
N.o 27 La Villa de Andoain en el mismo.
N.o 28 La Villa de Vrnieta en el mismo transito.
N.o 29 La Villa Hernani en el mismo transito.
N.o 30 La Ciud.d de Sanset.n fuera del Cam.o Real.
31 La Villa de Astigarra en el transito del Cam.o R.l
N.o 32 El Valle de Oyarzun en el mismo transito.
N.o 33 La Vnio.n de Yrun en el mismo transito.
N.o 34 Paso de Beobia y Rio Bidassa Con Rio de de España y Francia, y Fin de xtrano de Guipuzcoa por la parte del Oriente.
N.o 35 La Ciudad de Fuentorbia Fuera del Cam.o R.l
N.o 36 Rio Vrumea
N.o 37 Rio Oria
N.o 38 Rio Vrula
N.o 39 Rio de Deua, los quales Cinco Rios Muerren en el Mar Occeano Cantabrico, en distro de la Muy N.e Prov.a de Guipuzcoa.
Yultimam.te se prebiene que las lienas Amarillas demuestran el Curso de dhos Caminos y las Figuras de Casas desus lados las mui chas Caserias que ai en el Tran.to de ellos.
140662 876 m.

CGE-SGE. 1-149.

86. irudia. Merkatarien orga.
Figura 86. *Carro de mercaderes.*

Salterio Lutrell.

caminera del territorio, y tendrá unas claras derivaciones de carácter político y económico que repercutirán de una manera determinante en el propio devenir de San Adrian. Antes de la construcción de ese nuevo Camino Real las Juntas Generales impulsarán en el año 1736 un proyecto para la apertura de una nueva calzada por el paso de San Adrian. El proyecto será diseñado por el afamado arquitecto azpeitiarra Ignacio Ibero, empleando argumentos ya utilizados en propuestas anteriores (mejora de las comunicaciones, trazado más corto, incremento de los ingresos reales,...). A pesar de obtener la aprobación de las JJGG la fuerte oposición mostrada por las poblaciones del valle del Deba y del Urola, lógica por otra parte, hizo que el proyecto quedase empantanado y que en la zona no se hicieran más que unos reparos de corte menor (el proyecto original se había estimado en casi 650.000 reales).



AGG-GAO. JD-IM. 2-6-3.

87. irudia. San Adriango galtzada Ibero arkitektoaren proiektua (1752)

Figura 87. *Proyecto del arquitecto Ibero para la nueva calzada de San Adrian (1752).*

88. irudia. XVIII. mendean egindako galtzada.
Figura 88. *Traza de la calzada ejecutada en el siglo XVIII.*

1736an. Ignacio Ibero arkitekto azpeitiar entzutetsuak diseinatu zuen proiektua, aurreko proposamenetan erabilitako argudioak erabiliz (komunikazioak hobetzea, trazadura laburragoak, benetako diru-sarrerak handitzea...). Batzar Nagusien onarpena lortu arren, Deba eta Urola bailaretako herriek gogor egin zioten aurka, arrazoizkoa ere bada, eta proiektua bertan behera gelditu zen. Hala, konponketa txiki batzuk bakarrik egin zituzten (jatorrizko proiektuan 650.000 erreal erabiltzeko asmoa zegoen).

Une jakin horretan kokatu behar da, seguru asko, denok ezagutzen dugun traza, askotan errepikatu izan den hori. Aurrekoa baino zola soilagoko traza zen eta kanpotik ilara bikoitza zuen, bertikalean jarritako kareharrizko bloke handiz egina eta harri-koskorrez betea barnealdean. Batez besteko zabalera 3,40-3,75 m-koa zuen (aurrekoak 2,30) Galtzada berri hark trazadura tradizionalarekiko alde txiki batzuk ba-

A este concreto momento hay que atribuir muy seguramente la traza de todos conocida y que aparece frecuentemente reproducida. Una traza conformada por un pavimento más sencillo que el de su precedente, y que estaba compuesta por una doble hilera exterior ejecutada con grandes bloques de piedra caliza dispuestos verticalmente y un relleno de cascajo menor en el interior, con una anchura media de 3,40-3,75 m (frente a los 2,30 de la precedente). Esta nueva calzada variará ligeramente el trazado tradicional, discurriendo en muchas ocasiones por nuevos parajes más adecuados a las nuevas necesidades del transporte (carros), los cuales necesitaban de pendientes más suaves y curvas más amplias que las hasta ahora empleadas por las caballerías. Esta traza es la que ha llegado prácticamente hasta nuestros días, salvo pequeñas reformas y remociones operadas a posteriori pero que en ningún momento alteraron su imagen original.

zituen. Askotan, garraio-behar berrietara (gurdiak) hobeto egokitutako tokietatik igarotzen zen. Gurdiak igarotzeko, ordura arte zamariek erabiltzen zituztenak baino malda leunagoak eta bihurgune zabalagoak behar ziren. Traza hori da gaur egunera arte iritsi zaiguna, nahiz eta jatorrizko itxura aldatu ez duten ondoren erreforma eta eraberritze txikiak egin zitzaizkion.

Probintziak XVIII. mendearen erdialdetik aurrera trazadura berria Arlabango atetik barrena eraikitzeko emandako bultzada dela eta, San Adrian, bigarren mailan gelditu zen. Arlabandik bideratu zuten gizakien eta salgaien zirkulazio gehiena, bai zaldi bidezkoa, bai gurdien bidezkoa, eta San Adriango trazaduraren mugak zirela-eta, zamarietara mugatuta gelditu zen. Une hartatik aurrera, pasabideak pisua galdu zuen pixkanaka probintziako bide-sarean eta, horrek, mantentze-lanak ez egitea eta bidea hondatzea ere ekarri zuen. Egoera txarra izan arren, mantentze-lanen ardura zutenek, batez ere Segurak eta Partzuergoak, bidea konpontzeko eta egokitzeko beharra zegoela esaten jarraitu zuten behin eta berriro, garai batean zuen prestigioa berreskuratu nahian.

El impulso dado por la Provincia a partir de mediados del siglo XVIII a la construcción del nuevo trazado a través del puerto de Arlaban conllevará la marginación de San Adrian a un plano secundario. Mientras que por Arlaban se canalizará buena parte del tráfico humano y mercantil tanto a caballo como en carros, las limitaciones del trazado de San Adrian lo dejará restringido a caballerías. A partir de este momento este paso irá paulatinamente perdiendo peso en el entramado viario provincial, lo cual derivará paralelamente en una falta de mantenimiento y en la propia degradación del camino. A pesar de esa coyuntura negativa, las partes implicadas en su mantenimiento, mayormente Segura y la Parzonería, seguirán insistiendo en la necesidad de reparar y acondicionar el camino con el objetivo de recuperar su antiguo prestigio.

De esta manera fue paulatinamente languideciendo este paso de San Adrian y con él su calzada. El total desinterés mostrado por las autoridades provinciales por recuperarlo quedará en evidencia en múltiples ocasiones. Solamente a principios del siglo XIX se



GAO-AGG. JD-IM. 3-2-30.

89. irudia. San Adriango alkateak kobratutako tasen zerrenda (1622).

Figura 89. *Relación de las tasas cobradas por el alcaide de San Adrian (1622).*

Hala, San Adriango igarobidea itzali egin zen pixkanaka eta harekin batera, baita galtzada ere. Behin baino gehiagotan gelditu zen nabarmen probintziako agintariek ez zutela bidea berreskuratzeko batere interesik. XIX. mendearen hasieran egin zituzten lan batzuk inguru horretan, ia mende bateko tartean eginiko lehen lanak. 1820. urtean, hainbat konponketa txiki egin zituzten Sancti Spiritus ermitaren eta "Alto de la Orca" esaten zaion tokiaren arteko trazaduran. Ia 3.400 erreal gastatu zituzten hormak lehorrean egiten, hutsuneak harri-koskorrez betetzen, escocie edo hustubideak egiten eta pasabidea irekitzeko haitzak hausten. Lan horietatik proiektuaren traza xume baina adierazgarri bat kontserbatu ahal izan da.

San Adriango galtzadari eskainitako kapitulu hau amaitzeko, garai batean galtzada erabili eta galtzadaren nahiz haren inguruko eraikinen inguruko lekukotzak utzi dizkiguten bidaiariek emandako informazioari erreparatuko diogu, azaletik. 1490etik XVIII. mendearen hasierara arte inguru berezi honetatik igaro izanaren lekukotzak utzi dizkiguten hogeitik gora pertsona ospetsu ditugu. Bidaiari horiengan San Adriango igarobideak sortutako eragina oso handia da. Gehienak erliebe leuneko lurretatik etorritakoak ziren eta euskal mendietan gora abiatu eta, zehazki, San Adriango haitzera igotzeak, barruak mugiarazten zizkien eta ziabordarán una serie de obras de cierta relevancia en la zona, las primeras en casi un siglo. Concretamente en el año 1820 se llevarán a cabo una serie de reparos menores en el trazado comprendido entre la Ermita de Sancti Spiritus y *"el Alto de la Orca"* por valor de casi 3.400 reales (levantar paredes en seco, rellenar los huecos con cascajo, ejecutar varias "escocies" o desaguaderos, romper las peñas para facilitar el paso).

Una obra de la cual se ha podido conservar una sencilla pero ilustrativa traza del proyecto.

Para finalizar con este capítulo dedicado a la calzada de San Adrian vamos a acercarnos muy ligeramente a las informaciones proporcionadas por los distintos viajeros que antaño la utilizaron y que nos dejaron distintos testimonios de ella y de las construcciones existentes en su entorno. Disponemos de casi una veintena larga de distintos personajes que desde 1490 hasta principios del siglo XVIII nos han legado diferentes testimonios sobre su paso por este singular paraje. En esos viajeros el impacto que les produce el paso de San Adrian es enorme. Procedentes Procedentes en su mayoría de territorios de escaso relieve, ascender y en concreto alcanzar la peña



90. irudia. San Adriango galtzada konpontzeko,1820.urtean egindako lanen proiektua.
Figura 90. *Proyecto de las obras realizadas en 1820 para reparar el camino de San Adrian.*

GPAH-AHPG.2-2850, 113-119

tuzten beldur guztien irudikapen bihurtzen zitzaien igoera: haizeak astindutako zuhaitz garaiez osatutako baso itxiak, inguru bakarti eta isilak, bidelapurren gordelekuak ziruditen leizeak, labarren ertzak zeharkatzen zituen bide bihurgunetsua...

Leizearen jatorri naturalari edo artifizialari edo lehen aipatu dugun galtzadaren egoerari buruzko adierazpenak alde batera utzita, tuneleko eraikinei dagozkienei bakarrik erreparatuko diegu. Erreferentzia gehien egin zaizkion elementua ermita da, edota "capilla de San Adrian, y creo que es la que da su nombre a la montaña" (A. Navagiero, 1528); alegia, San Adriango kapera, ustez mendiari izena ematen diona. Honela definitzen dute: "una pequeña capilla dedicada a este Santo, con un altar sobre el que está la imagen de Jesucristo y el lienzo de la Verónica" (M. Zeillerum, 1617; J. Álvarez de Colmenar, 1707); alegia, Santu horri eskainitako kapera txiki bat, aldarearen gainean Jesu Kristoren irudia eta Veronikaren mihisea dituena. 1700ean hasitako auzi batean, eraikin txiki gisa (ia santutxo txiki bat) definitu zuten eta adierazi zuten nekez sartzen zirela bi pertsona eta zurezko balaustrada batekin itxitako aldare txiki bat zuela.

Ermitaren aurrean askotan aipatu izan den beste eraikin bat zegoen, ostatua edo benta. Bentari lotuta azaldutako iritziak ez datoz bat; hara, G. Braun eta F. Hogenbergius-ek 1567an honela deskribatzen dute: "un grato albergue en el que se proporcionan agradables comidas a los peregrinos, especialmente a los que llevan bien provista la bolsa. Tampoco falta pienso para los caballos, aunque no se tenga dinero"; alegia, aterpe atsegin bat, erromesei otordu atseginak eskaintzen dizkiena, batez ere, poltsikoa bero dutenei. Zaldientzako pentsurik ere ez da falta, baita dirurik ez dutenentzako ere. Beste batzuek, aldiz, iritzi okerragoa dute. Hara zer dioen B. Moncoyns-ek 1628an: "una caseta pequeña donde una mujer gorda da de beber a los caminantes"; hau da, emakume gizen batek edatekoa ematen die ibiltariei etxola txiki batean. Álvarez de Colmenar-ek honela dio: "bajo esta boveda se ha construido una hosteleria, donde se encuentra con que refrescarse en verano, ...pero en invierno la casa esta abandonada a causa de las nieves. Los huespedes son por lo comun miserables pordioseros que os piden limosna por amor de San Adrian" (1707); alegia, bobeda edo ganga honen azpian ostatu bat eraiki dute, udan freskatzeko aukera dago, ... baina neguan etxea abandonatuta egoten da elurra dela-eta. Apopiloak, normalean, eskale miserableak izaten dira eta limosna eskatzen dute San Adrianen izenean.

Bidaiariek behin eta berriro aipatzen duten beste elementuetako bat egarria asetzeko erabiltzen zuten iturritxo bat da: *"dentro de una fuente que se filtra entre los peñascos de arriba y se recoge en un vaso labrado*

91. irudia. Andrea Navagieroren erretratoa (Rafaelen oleoa), bera 1528. urtean San Adrianetik pasa zen.

Figura 91. *Retrato de Andrea Navagiero (oleo de Rafael), quién pasó por San Adrian en 1528.*

de San Adrian, trastornaba sus sentimientos y convertía este ascenso en la representación de todos sus temores (bosques cerrados de altos árboles agitados por el viento, parajes solitarios y silenciosos, cuevas que sugerían el cobijo de salteadores, camino con un trazado muy sinuoso al borde de precipicios,...).

Dejando de lado aquellas manifestaciones referentes al origen natural o artificial de la cueva, o al estado de la calzada que ya hemos visto con anterioridad, vamos a centrarnos únicamente en



Donostia kultura. San Telmo museoa, f-1818.

92. irudia. Bota baino lehen egindako ermitaren irudia (1893 urte inguru).
Figura 92. *Imagen de la Ermita antes de su derribo (hacia 1893).*

en las mismas peñas" (A. Navagiero, 1528); alegia, goiko haitzen artetik iragazten den iturri baten barruan eta haitzetan landutako edalontzi batean hartzen da. Beste hau ere bai: *"hay en la misma roca una fuente de la que brota agua viva"* (M. Zeillerum, 1617); harkaitzean bertan ur bizia darion iturri bat dago. Edota beste hau: *"del Peñasco encima sale una fuente que cae a baxo derecho en una cisterna, como si cayera o gotera de una boveda o del arco o texado de una cueva"* (F. Bell, 1633); alegia, harkaitzetik iturri bat ateratzen da eta ura uraska batera erortzen da, bobeda batetik edo leize baten arkutik edo estalkitik eroriko balitz bezala. Edo paraje ezatsegin hauek sorrarazitako beldurrak islatzen dituzten leizeak: *"y algunas cavernas o lugares obscuros, porque la luz no penetra allí más que por la entrada y la salida ... en todo tiempo se ha temido el pasar por ese agujero, a causa del encuentro que allí se hace a menudo de ladrones que se retiran a las montañas vecinas para esperar en este* aquellas que aluden a las construcciones que nos encontraremos en el Túnel. El elemento más veces referenciado es precisamente la ermita o *"capilla de San Adrian, y creo que es la que da su nombre a la montaña"* (A. Navagiero 1528), la cual es definida como una *"pequeña capilla dedicada a este Santo, con un altar sobre el que está la imagen de Jesucristo y el lienzo de la Verónica"* (M. Zeillerum 1617; J. Álvarez de Colmenar 1707). En un pleito entablado en 1700 es definido como un edificio de reducidas proporciones (casi un pequeño humilladero) en el que apenas cabían dos personas que contaba con un pequeño altar cerrado con una balaustrada de madera.

Enfrente de esa ermita se encontraba otra de las edificaciones habitualmente mencionada, la posada o venta. Respecto a la misma las apreciaciones reflejadas no son del todo coincidentes, puesto que si G. Braun y F. Hogenbergius la describen como *"un grato albergue en el que se proporcionan agradables comidas a los peregrinos, especialmente a los que llevan bien provista la bolsa. Tampoco falta pienso para los caballos, aunque no se tenga dinero"* (1567), otros como B. Moncoyns se refieren a ella más despectivamente como *"una caseta pequeña donde una mujer gorda*

93. irudia. Benta eta Mikeleteen Etxearen zimenduak.
Figura 93. *Cimientos de la Venta y la Casa de Miqueletes.*

paso a los viajeros" (A. Jouvin, 1672); alegia, leize edo toki ilun batzuk, ez baita hara argirik sartzen, sarreratik eta irteeratik sartzen dena baino ez... beti sortu izan du beldurra zulo horretatik igarotzeak, han inguruko mendietan bidaiariak igarotzeko zain egoten diren lapurrekin topo egitearen beldurrez. Eta beste hau ere bai, *"cuevas donde es frecuente que se oculten los ladrones; de modo que es peligroso pasar si no se tienen medios de defensa"* (Aulnoyko Kondesa, 1679); hau da, askotan lapurrek gordetzeko baliatzen dituzten leizeak, eta beraz, arriskutsua bertatik igarotzea babesik izan ezean.

94. irudia. San Adriango bidaia kontatzen duen Aulnoyko Kondesaren irudia. 1679.
Figura 94. *Retrato de la Condesa de Aulnoy que relatará su paso por San Adrian hacia 1679.*

da de beber a los caminantes" (1628) o como Álvarez de Colmenar que señala que *"bajo esta boveda se ha construido una hosteleria, donde se encuentra con que refrescarse en verano, ...pero en invierno la casa esta abandonada a causa de las nieves. Los huespedes son por lo comun miserables pordioseros que os piden limosna por amor de San Adrian"* (1707).

Otro de los elementos al que asimismo aluden esos viajeros de una manera un tanto insistente es la presencia de un pequeña fuente donde saciar su sed: *"dentro de una fuente que se filtra entre los peñascos de arriba y se recoge en un vaso labrado en las mismas peñas"* (A. Navagiero 1528); *"hay en la misma roca una fuente de la que brota agua viva"* (M. Zeillerum 1617); *"del Peñasco encima sale una fuente que cae a baxo derecho en una cisterna, como si cayera o gotera de una boveda o del arco o texado de una cueva"* (F. Bell 1633). O la presencia de una serie de cuevas que reflejan los temores que les infunden estos inhóspitos parajes: *"y algunas cavernas o lugares obscuros, porque la luz no penetra allí más que por la entrada y la salida ... en todo tiempo se ha temido el pasar por ese agujero, a causa del encuentro que allí se hace a menudo de ladrones que se retiran a las montañas vecinas para esperar en este paso a los viajeros"* (A. Jouvin 1672); existen *"cuevas donde es frecuente que se oculten los ladrones; de modo que es peligroso pasar si no se tienen medios de defensa"* (Condesa de Aulnoy, 1679).

95. irudia. Tunelaren goiko sarreraren inguruan azaleratutako galtzada zati berri bat (2015).
Figura 95. *Tramo de calzada descubierto en l a parte alta del Túnel (2015).*

Capítulo 8. El abandono del camino

Atala. Bide abandonatua

N. Castellanos

8. BIDE ABANDONATUA
EL ABANDONO DEL CAMINO

A. MORAZA

XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, Arlabandik barrena Errege Bide berria zabaldu zutenean, San Adriango igarobidea lozorroaldian sartu zen pixkanaka. Komunikazio-ardatz nagusietatik urrun gelditu zen eta oso gutxi erabiltzen zen, nahiz eta ez zen erabat utzia ere gelditu. Garai hartan, inguru hauetako bizimodua lasaia zen eta ez zen gorabehera aipagarririk izan. Bidea biziberritzeko sustatutako proiektuak edo ekimenak oso urriak izan ziren eta ez zuten ia eraginik izan inguruan. Beraz, San Adriango igarobideak komunikazio-sare nagusietatik baztertuta jarraitu zuen (1817, 1852, 1862). 1960eko hamarkadan Zalduondo eta Idiazabal lotuko zituen errepide bat egitea planteatu zuten, baina lehen zatia bakarrik egin zuten, Arabako aldean. Arabako aldean zein Gipuzkoakoan zeuden herriek oso ondo zekiten atea berriro zabaltzeak zer abantaila ekarriko zizkieten, baina inoiz ez ziren ahalegin haiek gauzatu.

Inguruak, hala ere, ez zuen inoiz Arabako lautadaren eta Gipuzkoako barnealdearen arteko igarobide nagusi gisa zuen izaera estrategikoa galdu. Horren adibide garbia dira 1813an izandako gertaera hauek: Gerra Napoleonikoetan (1808-1813), Thomas Graham, Lynedoch-ko baroia, jeneral eskoziarraren agintepean zegoen zutabe garrantzitsu batek San Adriango igarobidea erabili zuen Gasteizen ekainaren 21ean porrot handia izan zuten indar frantsesei atzera-egitea mozteko.

Balio estrategiko hori aipatutako gertaera horiek baino bi hamarkada lehenago ere gelditu zen agerian, hain zuzen, Konbentzio Gerraren testuinguruan (1793-1795). Lehen borrokak Espainiako Koroaren tropek irabazi ondoren, fronteko lerroa mugan finkatu zen hainbat hilabetez. 1794ko uztailaren amaieran, Konbentzio frantsesaren tropek, Moncey jeneralaren gidaritzapean, eraso gogor bat egin eta defentsa espainiarrak garaitu zituzten eta bidean ia erresistentziarik topatu gabe okupatu zuten Gipuzkoaren zati handi bat. Erasoa urte hartako udazkenean geratuta egon zen, eguraldi txarra zela eta

Egoera hura ikusita, Espainiako agintari militarrek defentsa-lerro bat jarri zuten urgentziaz abian tropa iraultzaileen aurrerapen kartsu hura gerarazteko eta, horretarako, hainbat gotorleku eta lubaki eraiki zituzten. Ondarroan hasi eta Ermua, Zaldibar, Elosua, Deskarga, San Adrian, Allaitz eta Etzegarate zeharkatzen zituen defentsa-lerroak, Nafarroaranzko bidean. Defentsa-Plana urte hartako irailean idatzia zen eta honako hau zion lurraldeari buruz: "laverinto de empinados montes poblados de arboles, jarales y otros materiales de un penoso transito aun para los de á pie que no sean del Pais ...constituyen al mayor cuidado y necesidad de fortificar mas

96. irudia. Tomas Grahamen erretratua. 1813.urtean San Adrian tuneletik igaro zen napoleonen ejerzitoaren erretirada mozteko.

Figura 96. *Retrato del general Tomas Graham que en 1813 atravesará San Adrian para cortar la retirada del ejercito napoleónico.*

A partir de mediados del siglo XVIII, con la apertura del nuevo Camino Real por Arlaban, el Paso de San Adrian entra en una fase de paulatino letargo. Alejado de los principales ejes de comunicación, apenas si es frecuentado aunque ello no suponga que su total abandono. Durante este período la vida transcurrirá en estos parajes de una manera pausada y sin apenas grandes altibajos de mención.

Los proyectos o iniciativas promovidas para la revitalización de esta vía durante dicho período serán ya muy escasos y sin ape-



© GAO-AGG. JD-IM 3-4-76.

97. irudia. Inbasio frantsesaren aurka egiteko Defentsa-Plana (1794).

Figura 97. *Plan de Defensa contra la invasión francesa (1794).*

